


66

3 euro • 2002ko MARTXOA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: KOLDO MITXELENA ZINEMA
KRITIKARIA • TEKNOLOGIA
BERRIAK: BIDEOA • ETORKINAK
SAN JOSE IKASTETXEAN • LIBE
GOÑI: SEASKAKO LEHEN IRAKASLEA



ELKARRIZKETA

Alvaro Marchesi



gaia

KOLDO MITXELENA

Gai honetan Bilboko Elorrieta-Erreka Mari institutu-ko Seve Sanchez irakasleak 1. BBBko ikasleekin lan- dutako proiektua aurkezten da. Zinema eta hizkun- tza batzen dituen esperientzia honek zinema kriti- kak egiten irakasteaz gain, Koldo Mitxelena zinema kritikaria ezagutzeko aukera ematen du.



eikarrizketa

ALVARO MARCHESI

Kalitatearen Legearen aurrean kokaturik, LOGSEren aitak egungo hezkuntzaren egoera aztertu eta proposamenak egiten ditu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

KOLDO MITXELENA

zinema kritikaria

Seve Sanchez

20 elkarriketa

ALVARO MARCHESI

28 teknologia berriak

Bidea

Iker Laskibar

30 esperientzia

San Jose ikastetxea

32 jardunaldiak

Ikastolen Elkartearen IX. Jardunaldi Pedagogikoak

35 berriak

41 eskolako zertzeladak historian

Libe Goñi: Seaskako lehen irakaslea

Amagoia Martija

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08


Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estarba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Alvaro Marchesi (Iker Kotx).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2002 / III/6 . Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliatzen dira. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO





Uztailaren 2, 3 eta 4ko ikastaroak

1. Teoria sakontzen: GADNER - 2. Web orria lantzen - 3. Power Point - 4. Klik: A. Hastapenak, B. Sakontzea - 5. Musika informatikaren bidez - 6. Kantu koral, erritmoa, metodo berria?... - 7. Ahotsaren berreziketa. Alexander metodoa - 8. Antzerkia - 9. Munduko dantzak - 10. Diafreo. Gorputza lantzeko beste era - 11. Joko kooperatiboak - 12. Psikomotrizitatea - 13. Euskaraz jolasten - 14. Ahozkotasuna: A. Hastapenak, B. Sakontzea - 15. Hizkuntzen curriculum bateratua - 16. Aniztasunaren trataera - 17. Erdaldunak euskalduntzen - 18. Literatur txokoa: Aresti, Lauaxeta, Atxaga - 19. Joko eta jolasak matematikan - 20. Natur Zientziak konstruktibismoaren ikuspuntutik - 21. Sexualitatea: A. Haur Hezkuntza, B. Lehen Hezkuntza, C. Bigarren Hezkuntza - 22. Heriotza - 23. Osasunerako Heziketa - 24. Familia berriekin lan egitera eta ulertzea behartuta gaude - 25. Egoera berezian dauden haurrak aintzat hartu eta bideratu - 26. Adimena berezko duten haurrak (Haur superdotatuak) - 27. Buru-erabilketa - 28. Intelijentzia garatzeko BITak - 29. Proiektuen pedagogia: Antzuolako esperientzia.

editoriala martxoa

Unescok dio euskara desagertzeko arriskuan dagoela



Aspaldidanik alarma gorria piztua badago ere, ea Euskal Herriak historian zehar erakutsi duen lanerako pertseberantziaz berde itzaropentzura garamatzan

Unescok aurkeztu duen munduko hizkuntzen atlasaren arabera, 6.000 hizkuntzetatik 3.000 desagertzeko arriskuan daude, tartean euskara.

Euskal Herrian, nagusiki, eskolan jarri da euskara berreskuratzeko esperantza. Urtero matrikula datuetara jotzen dugure txiki eta gaztetxoek euskara osasuna nola dagoen jakin nahian.

Duela 40 urte irakaskuntza prozesua erdara hutsean bazen ere, orduan abiatu zen euskalduntze ahalegina goraka joan da etengabe, azken 20 urte hauetan abiadura azkartu egin delarik.

Gaur egun, ikastetxe, herri, eskualde eta herrialdeen arabera ezberdintasun handiak badaude ere, ikasle txikien artean aurrerapen handia eman da euskararen ikasketari dagokionean. Baina, zer gertatzen da gure gaztetxoak heltzen doazen heinean? Institutuetan ehunekoa asko jaisten bada, Lanbide Heziketan datuak ñimiñoak dira, eta taldeak osatu ezina aitzakiatzat hartuta, egoera hobetzeko bide hestua ikusten

da. Unibertsitatean ere, zailtasun handiak daude hainbat ikasketa euskaraz egiteko EAEn. Nafarroan eta Iparraldean, aldiz, euskaraz aritzeko aukerarik ere ez dagoela esan liteke.

Pozgarria da hainbat ikastetxe normalizazio planetan murgilduta ikustea. Euskaraz hezteaz gain, hizkuntzaren normalizazioak izan behar duelako helburua. Horrek, ikastetxe barruko bizitza normalizatzea bilatzen du. Ikasgelako hizkuntza izatetik, pasabide, jolas-toki, ikasketa osagarri eta kirol jardunaldietan eragitea dakar. Eta nola ez, barruko presentzia fisikoak ere normalizatzen joan beharra du; administrazio lanak, talde eragileen eta azpibatzaletan jardunak, gurasoekiko harremanak... Bertako egoera ezagutu eta horretatik abiatuz, plan zehatzak ezarri behar dira normalizazioaren bidean sakonduz.

Garbi dago eskolak bakarrik ezin duela dena lortu, kanpoko eraginak handiak direla. Teknologia berriek ge-

roz eta eragin handiagoa dute ikasleengan; ikerketa batzuk diotenez, eskolak adinako eragina.

Eskolak inguruan eragin behar du, hori izan daiteke gizarteari egin diezaiokeen ekarpen nagusietakoa. Baina, inguruak ezinbestean erantzun behar dio eskolan egiten den ahaleginari. Herrietako euskara elkarteek, aisialdiko taldeek, herri mailako hitzarmenek, euskara biltegiek... Herri bakoitzean, eskolak bere plana duen neurrian, udalerrriak ere berea eduki beharko luke.

Etazeresanik ez, Euskal Herriangure hizkuntza eta kultura prestigiatuko duten bitarteko eta ekinbideak ezinbestekoak direla: administrazio ezberdinen normalizazio planak aurrera ateratzea, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua bezalako erakundeak bultzatzea, euskal komunikabideei laguntzea...

Hau da, behetik gora eta goitik behera eraginez eta elkarri lagunduz jardun behar dugua.

kronika

Iparraldeko eskola elebidunetan 14 postu elebidun gehiago izanen dira 2002-2003 ikasturtean.

Paueko Akademia Ikuskaritzak eskola kartak argitaratu ditu, eta horietan zehazten denaren arabera, 14 gela elebidun ireki eta frantses elebakarrean aritzen ziren zortzi gela itxiko dira.

Aldaketa horiek ez dute inongo eskolaren ixtea ekarriko, Joel Rene Dupont Paueko Akademia ikuskari nagusiak aditzera eman duenez. Eskola batzuek postuak galduko dituzte, eta beste batzuek irabazi.

Lehenengoan artean frantses eskola elebakarrak daude, eta bigarrenengoan artean eskola elebidunak. Irekiko diren 14 gela horiek irakasle postu erdia baino ez dute izango. Hala ere, gela elebidunak irekitzeko eskari guztiek ez dute Akademia Ikuskaritzaren oniritzia erdietsi. Behin behineko plangintza finkatzeko gurasoek eta irakasleek ere euren iritzia emanen dute.



Etorkinak D ereduan matrikulatzeko kanpainak egin dira

Aurtengo matrikulazio kanpainan etorkinak D ereduan matrikulatzeko deia luzatu da EAEn eta Nafarroan. Euskal kulturaren eta Euskal Herriko errealitatean integratzeko modurik onena dela aditzera eman dute kanpaina defendatu dute elkarrekin, besteak beste, Sortzen-Ikasbatuazek, Oinarriak elkarguneak, Euskara Kultur Elkargoak, Nafarroako Ikastolen Elkarteak eta Gasteizko Euskaltzaleon Elkarguneak.

Azken honek azaldu duenez, Arabako Hezkuntza Ordezkaritzak A eredura bideratzen ditu etorkinen seme-alabak, B eta D ereduei buruzko informaziorik eman ere egin gabe. Etorkinen ordezkari batek esan duenez, *“etorkinontzaterosoagoa izan daiteke seme-alabek gaztelania dakitela ziurtatzea, baina haurrentzat ez du zertan onena*

izan”. D eredua egoki ikusten dute haurrak *“euskal komunitatean buru-belarri integratzea ahalbidetzen duelako”* eta Euskal Herrian jaiotako haurrekin *“aukera berdintasunean”* ipintzen dituelako.

Hala ere, argibidea, laguntza eta baliabideak falta dira guraso etorkinek D eredua ezagutu eta hauta dezaten. Hutsune hori betetzeko asmoz Sortzen-Ikasbatuazek egitasmo bat jarri du abian. Beronen xedea etorkinei integrazioa erraztea da, eta horretarako hainbat proposamen luzatzen ditu: bilerak egitea proposatzen du haur eta gurasoekin, harrera bereziak, jantokiko menuetan berezitasunak kontuan hartzea eta eskolako jaietan beste kulturak ez ahaztea.

Proposamena elkarte, irakasle, laguntza talde eta etorkinen elkarrekin landu da, eta orain ikastetxe guztietara igorriko da eztabaida eta onar dadin.

Bien bitartean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ingelesari ematen dio lehentasuna, eta ingeles goiztiarra ezartzeko erabakien berri eman du. Datorren ikasturteetik aurrera 3 urteko haurrek eta Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoek gutxienez astean bi orduko ingeles eskola izanen dute Nafarroako ikastetxe publiko eta kontzertatuetan. D ereduko ikastetxeetan, ordea, irizpide pedagogikoak kontuan hartuta, 4 urtera arte atzeratu ahal izango da eredu berriaren ezarpena.

Haurrak bi urte eta erdi dituztenean hasten dira errealitatea eta itxuraren artean bereizketa egiten.

Hilary Putnam



Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimen bihurtu da

Euskal Herriak Bere Eskola kanpainakizaera aldatu du eta herri mugimendu gisa antolatuko da hemendik aurrera. Martxoaren 23an egingo da Altsasun sortze batzarra.

Urrian hasi zen kanpaina hori eta eragileak gustura daude orain arte emandako urratsekin. Ehunka ikasle, irakasle eta guraso bildu dira herri eta auzoetan euskal hezkuntza sistema propioa sustatzeko helburuarekin. Zehazki, Hegoaldeko 37 herritan eta lau hiriburutako 24 auzotan sortu dira lan taldeak. Aurrerantzean herri eta eskualde gehiagotara zabaltzeko asmoa dute, eta baita Lapurdira, Nafarroa Behereara eta Zuberoara.

Lan talde bakoitzak bere beharrak eta egitekoak erabakiko ditu hemendik aurrera ere, baina horrez gain, taldeak elkarren artean koordinatuko dira, eta

horretaz arduratuko da koordinazio nazionala. Xedea lan praktikoa egitea da, hots, euskal hezkuntza sistemaren aldarrikapena helburu zehatz eta lorgarrien bidez lantzea.

Altsasuko batzarraren aurretik eskualdeka batzarrak egingen dira kanpainaren balorazioa egiteko. Batzar horietako ekarpenak bilduko dira Altsasuko bilkura nazionalean, eta ondoren hurrengo hilabeteetarako plangintza proposatuko da.

Herri ekimen honen eragileek eskualdeko batzarretan nahiz nazionalean parte hartzeko deia luzatu diete ikasle, irakasle, guraso eta hezkuntzan interesa duten guztiei.

Bada abian jarri den beste ekimen bat ere, kasu honetan ikasleena. Ikasle Abertzaleak erakundeak egitura nazionala osatu du, hau da, Iparraldean ere zabaldu da. Hegoaldean 13 urteko ibilbidea egin badu ere, Iparraldean orain eratu da. Dagoeneko bi talde antolatu dira, bata Bernat Etxepare lizeoan eta bestea Baionako unibertsitatean. Hirugarren bat osatzen dago Donibane Garaziko lizeoan. Bernat Etxepare lizeoko ikasleen aldarrikapen nagusiak baxoa euskaraz gainditzeko eskubidea aldarrikatzea eta selektibitatearen arazoari irtenbidea ematea dira. Unibertsitateko taldearen ildo nagusiak euskararen egoera kaskarra salatzea, Euskal Herrian ikasteko eskubidea aldarrikatzea eta jarrera demokratikoak aldarrikatzea dira.

EAEko irakasleentzako Lan Eskaintza Publikoa 2003ko uztailean arte atzeratu da Hezkuntza Sailak eta ELA, LAB, EILAS eta UGT sindikatuak hala adostu ondoren. Aldaketa horrekin irakasleak lasaitu eta hizkuntz eskakizuna ez dutenei prestatzeko astia eman nahi izan diete. Anjeles Iztueta Hezkuntza Sailaren esanetan, "horrela denok irabaziko dugu: irakasleek denbora gehiago izango dute azterketak prestatzeko, euskara falta zaienek ere denbora gehiago izango dute euskara prestatzeko, eta irakasle guztiak lasaiago ibiliko dira". Dena dela, Hezkuntza Berezirako pertsonala hartzeko probak aurtengo udazkenean egingo dira, eta guztira 121 lanpostu aterako dira. Datorren urteko uztaileko deialdian, bestalde, 1.352 lanpostu eskainiko dira. Irakaskuntzan oihartzun gutxiago izan ohi du lehen sektoreak, baina nekazaritza, artzain eta arrantzale eskolak ere badira. Eskola horietako gehienetan gaztelaniaz ikasten dute, nahiz eta gehienak euskaldunak izan. Hori dela eta, *Nekazaritza euskaraz, orain* lelopean mobilizazioak egingen hasi dira. Ikasle horien aldarrikapenak eskolak, irakasleak, materiala, ikastetxeen funtzionamendua eta ikasleek egingen dituzten praktikak euskalduntzea dira. Murgia, Derio, Arkauti, Fraisoro-Zizurkil eta Txantreako ikasleek ekimen bateratua eramango dute aurrera, eta Iparraldeko nekazari eskolekin ere harremanetan jarriko dira. Horrez gain, lehen sektorean ere egingen dute zabalpena, Euskal Herrian dauden artzain eta arrantzale eskoletara, eta nekazaritzako eta irakaskuntzako eragileengana joz.

Koldo Mitxelena

zinema kritikaria



Gai honetan zinema munduan murgildu gara Bilboko Elorrieta-Erreka Mari institutu-ko Seve Sanchez irakasleak 1. BBBko ikasleekin landutako proiektua dela medio. Zinema kritikak egiten ikasi dute ikasleek, edo zehatzago, ikusle kritikoak izaten. Horretarako, Koldo Mitxelena hizkuntzariak eta idazleak idatzitako zinema kritikak izan dituzte bide erakusle. Modu horretan, esperientzia honekin gauza bi lortu dituzte: zinema kritikak egiteko gai izatea eta Koldo Mitxelena zinema kritikaria ezagutzea.



Koldo Mitxelena hizkuntzalaria, idazlea eta zinema kritikaria

Koldo Mitxelena zinema kritikaria



Seve SANCHEZ

Bilboko Elorrieta-Erreka Mari institutuko irakaslea

Zer da zinema kritika?

Galdera horri bost erantzun baino gehiago ez dizkiozu eman behar; beraz, **aukeratu bost ideiarik garrantzitsuenak eta idatzi bost esalditan.**

Ezer bururatzen ez bazaizue, jarraian ideiak edo elementuak aurkitzen laguntzeko beste galdera batzuk doazkizue: nolakoa izan behar du zinema kritikak? Luzera? Zer esan behar da zinema kritika batean? Zer ez da esan behar? Zein zinema alderdi jarriko dituzu kritikan? Zeri buruzko informazioa eman behar du?

Erantzun guztiak jaso eta gero, laburtzeko eta sailkatzeko lanari ekin nion, lehenengo urrats horren bigarren zatia betetzeko asmoz. Horrelaxe itzuli nizkien ikasleei beraiek agertutako zinema kritikaren definizioa eta alderdiak. Ikus ditzagun:

Hauexek dira ikasleen erantzunak, laburtuta eta sailkatuta:

1. Zinema kritikak objektiboa izan behar du, zintzoa eta objektiboa. Ez da iritzi pertsonala eman behar. Iritzi pertsonala esan behar da.
2. Zinemaren ezaugarriak buruz jakin behar du kritikariak.
3. Kritikak ez du oso luzea izan behar; ezta oso laburra ere.
4. Filma nolakoa den esan behar da. Ona edo txarra den, baina argudioak emanez.
5. Filmaren alde guztiak ondo ikusi behar dira: gaia, argumentua, pertsonaiak, gidoia eta gidoilariaren lana, ekoizlearen lana, antzezleen lana, musika eta soinu efektuak, efektu bereziak eta abar.
6. Beste film asko ikusi behar dira, konparazioak egiteko.
7. Ezin da filmaren amaiera jarri.

Hizkuntza arrazoiak zirela eta, Mitxelenaren *Idazlan hautatuak* liburua irakurri nuen aspaldian. Bertan, zinema kritika batzuekin topo egi- tea, zalantzarik gabe, uste- kabe atsegina da zinemazale euskaldunontzat. Une hartatik bertatik pentsatu izan dut kritika haiek aukera asko ematen zutela bai ikerketarako eta bai lanerako. Ibaizabal argitaletxearen *Euskara eta literatura*. 1. DBHO liburua- ren egileek argudio testua azaltzerakoan Mitxelenaren *Animal Farm* filmaren kritika sartzean, bidea erraztu dida- te nire aspaldiko asmoa buru- tu ahal izateko; hau da, Koldo Mitxelena zinema kritikaria- rengana hurbiltzea.

Helburuak

Hiru dira esperientzia honekin lortu nahi izan ditudan helbururik behine- nak: a) argudio testuak landu eta ekoiz- tea; b) zinema kritikak baloratu eta egi- tea; eta c) Koldo Mitxelena bera ezagu- ztea.

Argi dago OCDak agintzen dituen helburu kontzeptualak, prozeduraz- koak eta jarrerazkoak jorratuko direla esperientzian.

Esperientziaren garapena

Goian ikusi ahal denez, experien- tzia batxilergoko lehen mailako ikasle- ekin burutu da.

Jarraian, erabilitako prozedura urratsez urrats deskribatuko dugu. Ira- kurketa errazteko, itzalpean jarrita doa ikasleei emandako materiala.

1. Aurretiko lana edo aurkez- pena

Lehen urrats honen helburuak ikas- leak gaien murgiltzea eta gaiari buruz uste baino gehiago zekitela erakustea izan dira; edo beste era batera esanda, hasierako ebaluazioa gauzatzea.

Horretarako, hurrengo galde ze- rendan banatu nien:



8. Filma nori zuzenduta dagoen esan behar da.

9. Filma gustukoa izan den edo ez esan behar da, zergatik ikusi behar den eta zergatik ez.

10. Filmaren balorazio orokorra: zinema kritikak film bat hautatzeko balio behar du.

Egun berean, adituentzat zinema kritika zer den azaltzen zuten orrialde batzuk ere eman nizkien, alde batetik, eurek egindakoarekin konparazioak egin ahal izateko, eta bestetik, zinema kritikaz gehiago ikaszezaten. Hona hemen banatutako testua:

ZINEMA KRITIKA

Jarraian doazen oharra *Film Art. An Introduction* liburutik hartuta daude. Liburu horrek badu gaztelaniazko itzulpena: DAVID BORDWELL eta KRISTIN THOMPSON (1995): *El Arte cinematográfico. Una introducción*, Barcelona, Paidós.

Zinema kritika: sarrera

Film bat **ulertu nahi duen edozein pertsona kritikoa** edo kritikaria dela esan daiteke. Ikusitako filmaz eztabaidan diharduen edonor zinema kritika egiten ari da.

Zinema teknikak ezagutzeaz gain, filmak aztertze biderik eraginkorrenak beste **kritikarien lanak irakurtzea eta filmak kritikoki ikustea** dira.

Filma aztertzerakoan, kritikariak beti izaten du gogoan xede edo helburu bat: filmaren alderdiren bat ulertzea, zergatik gustatu zaion esatea edo irakurleak filma ikustera joan daitezen konbentzitzea.

Helburuak hainbat izanik, **film osoa aztertzea zein azaltzea ia ezinezkotzat jo dezakegu**. Horregatik, kritikek ez dute inoiz filma agortzen eta beti alderdi batzuk aztertzeke geratzen dira. Horrela, film bakar bati buruz liburu bat baino gehiago dago idatzita.

Filmak desberdinak badira -esate baterako, zinemaren generoak gero eta ugariagoak dira-, **kritika ereduak ere askotarikoak** izango ditugu.

Filmaren kritika

Ikus ditzagun orain film baten kritikaren **prestakuntza, antolakuntza eta idazketa**.

Prestakuntza edo aurretiko lana

Edozein testuk bezala, filmaren kritikak ere **aurretiko lana** eskatzen du.

Lehendabizi, **testua argudiozkoa** izango dela esan behar da. Film bati buruz gure iritzia emango dugu eta iritzi hori argudioen bidez defendatzen ahaleginduko gara.

Prozesuaren lehen urratsa **filmari buruz zer esan nahi dugun pentsatzea** da. Hausnartzean galdera batzuk egingo dizkiogu geure buruari: zein da filmaren alderdirik interesgarriena? Zer ikasi ahal dugu zinemagintzaren aldetik? Eragin berezirik izango al du ikuslearengan? Zein dira filmaren esanahirik garrantzitsuenak?

Galdera horiei emandako erantzunetatik aterako dugu gure azterketaren **tesia**. Eta, zalantzarik gabe, gure tesiaren arrazoibideak argiagoak eta sendoagoak izango dira, aurretiko lana ondo burutuz gero.

Tesia hautatuta, filmaren antolaketaz egututa eta gure asmoetarako nabariak diren teknikei buruzko oharra hartuta, **prest geundeke gure kritika eratzeko**.

Antolakuntza eta idazketa

Orokorrean hauxe da **argudio testuaren oinarriko egitura**:

Sarrera: aurretiko informazioa, tesiaren aurkezpena.

Gorputza: tesia sinetsarazteko arrazoibideak; tesiari laguntzeko datuak eta adibideak.

Ondorioa: tesiaren baieztapena eta bere kokapena eztabaida orokorran.

Edozein idazlanen oinarri-oinarriko osagaia **paragrafoa** dela eduki behar dugu beti gogoan. Horrela, sarreran gutxienez paragrafo bat erabiliko dugu, gorputzean batzuk -beharrezkoak balira, noski- eta ondorioan



bat edo bi.

Tesia sinetsarazteko testuaren gorputzak **arrazoi edo argudio batzuk** aurkeztu behar ditu, beti adibidez eta probez hornituta. Ez litzateke ideia txarra izango hasieran gure arrazoiaren zerrenda osatzea eta mailakitzea.

Gero, ohikoa da tesia justifikatzeko erabilitako **arrazoi bakoitza paragrafo batean** garatzea.

Argudioak defendatzeko adibideak atera ditzakegu filmetik bertatik, edozein alderditatik, hala nola: argazkitik, muntaiatik, soinutik, eszenarizetik... Beste taktika bat filma beste batekin alderatzea litzateke. Batzuetan, berriz, esena bakan baten azterketa sakona egitea ondo legoke. Estrategia asko ditugu, baina gure irudimenaren, ezagutzaren eta trebetasunaren mende dago tesia ondo arrazoitzea.

Ondorioa edo testuaren **amaiera funtsezkoa da**. Bertan tesia baieztatu egiten da eta irakurleari kontuan hartu beharreko arrazoibideak gogorarazten zaizkio. Garrantzitsua da amaiera bizia lortzea. Une horretan aipamena bat bikain etorri ohi da.

Eranskina: zinemaren lanbideak

Michel Chion-ek *Le Cinéma et ses métiers* liburu interesgarrian -gaztelaniaz, *El cine y sus oficios*, Cátedra, 1992- zinemagintzako lanbideak aurkezten eta aztertzen ditu maisuki. Ondokoak lirateke film baten gauzatzean aurkitu ahal ditugun pertsona eta olibide batzuk: ekoizlea, zuzendaria, gidogilea, antzezlea, dekoratzailea, argazkiaren zuzendaria, soinuaren ingeniaria, efektu berezien arduraduna, muntatzailea, musikaria...

2. Koldo Mitxelenak egindako zinema kritiken azterketa

Jarraitu baino lehen ohar bat egitea gustatuko litzaidake. Hurrengo testuek eta azterketek ez dituzte Mitxelenaren kritikek ematen dituzten aukerak agortzen. Are gehiago, gure ustez egin gabekoa handiagoa da esandakoa baino.

Mitxelenak egindako zinema kritika guztiak *Koldo Mitxelena: Euskal idazlan guztiak I* liburuan (Patxi Altunak prestatua. Klasikoak. Euskal Editoreen Elkarte. 1988) aurki daitezke. Gure lanaren aipamen guztiek horri egiten diote erreferentzia.

1954-1964 urteen artean Mitxelenak kritika asko egin zituenez, behartuta geunden gure esperientziarako batzuk aukeratzera. Hautaketa egiteko irizpidea garbi dago edozein zinemazalerentzat: lau film hauek zinemaren historia guztietan agertzen dira; baita zinemari buruzko edozein testutan ere. Zinema arloan oraindik ere noizean behin film onenen zerrendak argitaratzen dira. Bada, zerrenda guztietan agertzen dira aztertuko ditugun lau filmak.

Lauak, goian esan dugun bezala, film onak dira eta halaxe ikusi zituen Mitxelenak bere garaian; horregatik, kritikak ere positiboak izango dira, filmen aldekoak.

Koldo Mitxelenak egindako zinema kritiken azterketa

Erantzun galdera hauei:

Orokorrak, film guztiei buruz:

1. Atera Mitxelenak erabilitako hiztegi tekniko edo zinema hiztegia.
2. Zein da Mitxelenaren xedea edo helburua zinema kritikak egiten ditue-nean?
3. Aipatu Mitxelenak aztertzen dituen filmaren alderdiak.
4. Esan zein diren Mitxelenak zinema kritiketan egindako aipamenak:
 - (a) Zinemarekin lotutako aipamenak:
 - (b) Gainerako kultur erreferentziak:

GAI A

Koldo Mitxelena

zinema kritikaria

Film bakoitzari buruz egiteko:

CITY LIGHTS (HIRIKO ARGIAK), 1931, Charlie Chaplin (1889-1977)
 RASHOMON, 1950, Akira Kurosawa (1910-1998)
 LA STRADA, 1954, Federico Fellini (1920-1993)
 ZAZPIGARREN ZIGILUA, 1956, Ingmar Bergman (1918)

1. Zein da tesia edo tesiak, bat baino gehiago balira?

- (a) Tesiaren aurkezpena.
- (b) Tesia sinetsarazteko arrazoibideak.
- (c) Tesiaren baieztapena eta ondorioa.

Ondorio orokorrak: esan zinema kritikari lanean Mitxelenak zein berezitasun zituen

Atera Mitxelenak erabilitako hiztegi tekniko edo zinema hiztegia:

Antzezleri La Strada, 1.
Argi-oihal City Lights, 1.
Arte City Lights, 1; Zazpigarren Zigilua, 1.
Arte gai Zazpigarren Zigilua, 1.
Arte-lan City Lights, 1.
Egile Zazpigarren Zigilua, 1.
Film City Lights, 4; Rashomon, 1; La Strada, 3; Zazpigarren Zigilua, 4.
Gai Zazpigarren Zigilua, 2.
Ikuskari Zazpigarren Zigilua, 1.
Ikuskizun Zazpigarren Zigilua, 1.
Ikusle Zazpigarren Zigilua, 2.
Irudi City Lights, 2; Zazpigarren Zigilua, 1.
Irudipen City Lights, 1.
Istorio La Strada, 1.

Kritiken azterketa egiteko galde zerrenda hori banatu nien ikasleei. Galderak nire ustez asko eta zabalak zirenez, banan-banan egiteko esan nien. Astean erantzun bat edo bi egin behar ziren. Dena den, beti prozedura berajarraritu genuen. Ikasleek lana ekartzen zidaten egun berean nik neurea eskaintzen nien, eurei egindako galdera guztiei neuk ere erantzun bainien. Hortaz, orain doazen azterketak nireak dira. Filmaren atzean hitza zenbat aldiz agertzen den ikus daiteke. Gero, amaieran, ikasleek egindako ekarpenak jarriko ditut.



Kolore City Lights, 1; Rashomon, 1.
Mintzabide Zazpigarren Zigilua, 1.
Pelikula City Lights, 1.
Saio Zazpigarren Zigilua, 1.
Soinu City Lights, 1.
Zeluloide City Lights, 1.
Zinema City Lights, 2; Rashomon, 1; La Strada, 1; Zazpigarren Zigilua, 3

Aipatzekoak dira, nire ustez, “**zine-
ma**” eta “**film**” hitzak. “Zine” hitza ez du erabili eta “pelikula” behin bakarrik. Hori kontuan hartuta, neuk ere Mitxelenak bezala, “zinema” eta “film” hitzak soilik erabiliko ditut.

2. Zein da Mitxelenaren xedea edo helburua zinema kritikak egiten dituenean?

Lau kritika hauek aztertuta, esan behar dugu ez dugula nahiko argibiderik aurkitu galderari behin betiko erantzuna emateko.

Dena den, zerbait esatera ausartuko gara. Honela, gure ustez, lehendabizi, kritikak edo iruzkinak zinemazalea zelako egiten zituen; hau da, Koldo Mitxelenak zinema biziki atsegin zuelako. Esate baterako, Ingmar Bergman-en filmaren kritikaren hasieran hauxe dio: “*ia arrastaka eraman nindutela*”. Ezzegoen ziur filma gustukoa zuenik. Eta jarraian: “*baina zorionez eraman ninduten*”. Argi dago zinema aretoetara “ondo pasatzera” joaten zela, eta gainera, izugarri gozatsen zuela film on baten aurrean. Gogoratu *La Strada*-ren kritika: “*azkeneko zenbait urtez ikusi ditudan filmetan onena*”. Ogibidez kritikaria izan balitz, agian “behartuta” joango zatekeen, baina inolaz ere ez “arrastaka”.

Aztertzen dituen filmen alderditan ere zaletasunagatik egiten zituela ikus daiteke. Ia kritika guztietan gaia, argumentua edota istorioa aztertzen ditu. Edukian jartzen du arreta bereziki. Zinema bera eta zinema kritikaria lanbide izan balitu, gainerako alderdiei –zuzendaritza teknikei, adibidez– bestelako garrantzia emango ziekeen.

Laburtzeko, esan dezakegu Mitxelenaren helburua euskaraz atsegin

zuen gai bati buruz, zinemaz, hain zuzen ere, idaztea zela, libreki, gogoz eta atseginez, irakurleei bere iritzia helarazteko.

Galdera hori toki honetan jartzea zalantza handikoa izan da. Alde bate-tik, kritiken irakurketa orokorra bultzatu nahi nuen; baina bestalde, zailegia iruditzen zitzaidan hasieran Mitxelenaren xedeaz galdetzea.



3. Aipatu Mitxelenak aztertzen dituen filmaren alderdiak:

Alderdia	Filma eta Paragrafoa
Gaia	<p>Rashomon: “<i>perspektibismoaren argibide</i>” “<i>Baina, honek berak ere egi-egia esan ote digu</i>”¹,², hau da, egia ezagutzearen arazoa.</p> <p>La Strada: “<i>Gaia arrunta da eta zarpail xamarra</i>”, “<i>Gizatasuna dariolako</i>”²,³, hau da, gizatasuna edozein egoeratan.</p> <p>Zazpigarren zigilua: “<i>betiko galderak: Jainkoa, hil ondoko irautea ala ezereza</i>”, “<i>gairik goitarrarena...</i>”⁴,⁷, hau da, heriotzaren ondokoa.</p>
Argumentua edo istorioa	<p>Rashomon: “<i>Har itzazue hiru lagun –senarra, emaztea eta lapurra– eta bil itzazue elkarrekin...</i>”¹,²,³.</p> <p>La Strada: “<i>Zirku-gizon arlotea –kate haustaila besterik ezinean– buruz baino indarrez hobeto hornitua eta etxeokoei honi saltzen dioten neskatxa erdi inozoa...</i>”²,³.</p> <p>Zazpigarren zigilua: “<i>Zalduna aspaldi utzi zuen jaioterrira atzera itzuli denean...</i>”³,⁴,⁵,⁶.</p>
Antzezleen lana	<p>La Strada: “<i>personak arruntak eta dohai berezirik gabeak badira, ez direla honelakoak antzezleriak</i>”⁴.</p>
Zinema hizkuntza	<p>Zazpigarren zigilua: “<i>Ingmar Bergman-ek ez du film honetan hizkuntza berririk asmatu...</i>”¹,².</p>
Zinema bera: a) zinemaren bilakaera teknikoa b) zinemagintza	<p>a) City Lights: “<i>Artean keinuka –gor-mutuen antzera– ari zitzaigun zinema hasi zen behin, ez oso gaxterik, hizketan...</i>”⁵</p> <p>b) Rashomon: “<i>Film on bat egiteko...</i>”⁴.</p>

Filmaren ondoko zenbakiak “aipamena” dagoen paragrafoa adierazten du. Erreferentziak errazago bideratzearen, kritiken paragrafoak zenbatu egin ditugu.

Hurrengo galdera erantzuteko, aipamen bakoitzari buruz lerro bat baino gehiago ez idazteko azpimarratu nien ikasleei, helburua, azken batean, lan bat egiterakoan hiztegi entziklopedikoen erabilera beharrezkoa dela erakustea baitzen; baita, jakina, Mitxelena kultura handiko gizona zela ere.



4. Esan zein diren Mitxelenak zinema kritiketan egindako aipamenak:

(a) Zinemarekin lotutako aipamenak:

CITY LIGHTS

Hollywood: AEBetako Los Angeles hiri ondoan dagoen zinema gunea.

Charlie Chaplin: aktore eta zinema zuzendaria. Londres, 1889-Suitza, 1977.

“The Black Knight” –Zaldun beltza-. Film bat.

“Captain King”: Henry King-ek egindako filma, 1953.

“Limelight”: Charlie Chaplin-ek egindako filma, 1952.

LA STRADA

Federico Fellini: zinema zuzendari italiarra, 1920-1993.

Anthony Quinn: Ipar Amerikako aktorea. Mexiko, 1915.

Richard Basehart: Ipar Amerikako aktorea. Ohio, 1914- Los Angeles, 1984.

Giulietta Masina: aktore italiarra. Felliniren emaztea.

ZAZPIGARREN ZIGILUA

Ingmar Bergman: zinema eta antzerki zuzendari suediarra. 1918.

Charlie Chaplin: ikusi “City Lights”.

Frank Capra: zinema zuzendari estatubatuarra. Palermo, 1897-Kalifornia, 1991.

Federico Fellini: ikusi “La Strada”.

Juan Antonio Bardem: zinema zuzendari espainola. Madril, 1922.

Alfred Hitchcock: zinema zuzendari britainiarra. Londres, 1899- Hollywood, 1980.

“Psychosis”: Hitchcock-en filma, 1960.

(b) Gainerako kultur erreferentziak

CITY LIGHTS

Gregorio Marañón: mediku eta idazle espainola. Madril 1887-1960.

EGAN: RSBAPen buletinaren literatur eranskina. Donostia, 1948. Aldizkari honetan idatzi zituen Mitxelenak zinema kritikak.

RASHOMON

José Ortega y Gasset: filosofo eta idazle espainola. Madril, 1883-1955.

LA STRADA

Gurutz Ansola: ekonomialaria. Azpeitia, 1924. EGAN aldizkarirako zinema eta antzerki kritikari gisa lan egin du (1956-62).

ZAZPIGARREN ZIGILUA

Luis de Góngora: poeta espainola. Kordoba, 1561-1627.

James Joyce: idazle irlandarra. Dublin, 1882- Zurich, 1941. “Ulises” 1922.

Nikolas Ormaetxea “Orixe”: euskal idazlea. Oresa, 1888- Añorga, 1961.

Blaise Pascal: matematikari, fisikari, filosofo eta idazle frantsesa, 1623-1662.

Biblia, Jainkoa, Familia Santua, Mendiko hitzaldia, Apokalipsia...

Jarraian datorren bosgarren urratsa argudio testua zer den aztertze funtsezkoa dugu, funtsezkoena ez esatearren. Galdera benetan esanguratsua denez, ikasleei film bana aukeratzeko eta egiteko esan nien. Dena dela, nik den-denak eman nizkien.

Lanari ekin baino lehenago, argi azaldu nien ondo arrazoituz gero, lan guztiak baliagarriak direla, denek laguntzen baitute zinema kritikak egiten, argudio testuak aztertzen eta Mitxelena ezagutzen.

Mitxelenaren
helburua euskaraz atsegin
zuen gai bati
buruz, zinemaz,
hain zuzen ere,
idaztea zen,
libreki, gogoz
eta atseginez,
irakurleei bere
iritzia helarazteko

CITY LIGHTS (HIRIKO ARGIAK), 1931, Charlie Chaplin (1889-1977)

1. Zein da tesia edo tesiak, bat baino gehiago balira?

Antzinako film mutuak ere onak izan daitezke-ela.

(a) Tesiaren aurkezpena:

Film honen tesiaren aurkezpena lehenengo bi paragrafoetan ikus dezakegu: *“Orain (...) Hollywoodetik ere deus gutxi etortzen zaigu”*. *“Honi esker (...) zeluloide zaharra agertzen zaigu”*. Ez omen zegoen film berririk; hortaz, aukera ederra *“Hiriko argiak”* berrikusteko edo gazteagoentzat lehenengo aldiz ikusteko.

(b) Tesia sinetsarazteko arrazoibideak:

Kritikaren hurrengo paragrafoetan tesia zein ondo arrazoitzen duen baieztatu ahal izango dugu.

Berehala zalantza agertzen du: *“ea beti aurreraka ibili ote garen”* (3. paragrafoa).

Aurrerapenak agerian daude, baina, berez, onak ote dira? Konparazioak egiten ditu eta batzuetan gogorak benetan: *“Gure gurasoek (...) eztanda baten bidez etxe bat desegiten bazuten, guk herri osoa txeha dezakegu”*. Eta zinemara etorritik: *“gure arte-lanak ederragoak ote haienak baino?”* (4. paragrafoa).

Bosgarren paragrafoa, nire ustez, Mitxelenak zinema kritika batean idatzitako zatirik bikainena ez bada, ez zaio asko faltako. Izan ere, lerro gutxitan zinemak izan duen garapen teknikoaren laburpen osoa egiten du, eta gainera, umore finez. Irakurri ondoren, aurrerapenak “barregarriak” dirudite. Garbi dago Mitxelenarentzat pantaila *“luze-zabalean”* handitzea ez dela aurrerapena. Hurrengo paragrafoan “aurrerapen” horien adibide diren bi film aipatzen ditu.

(c) Tesiaren baieztapena eta ondorioa:

Azken bi paragrafoetan tesiaren baieztapena dator: *“nola adieraz ote daitezke gauzak hitzik gabe?”*. Orduan, Chaplinen bi film alderatzen ditu; mutua bata eta mintzatua bestea. Eta azkenean, bigarrenari buruz zera irakur dezakegu: *“zerbait gehiegixko du”*. Zer da? Ezin da argiago esan “hitzik” gabe, Chaplinek bezala.

Gure ondorioa: Mitxelenak ederki azaltzen du zinemaren aurrerapenak ez daudela pantailaren tamainan edo efektu berezietan, baizik eta, batez ere, gaien edukiak aurkezteko jorrotutako zinema hizkuntzan.

RASHOMON, 1950, Akira Kurosawa (1910-1998)

1. Zein da tesia edo tesiak, bat baino gehiago balira?

* Japoniarrek egindako film bikain honetan gizakion kezka filosofikoak eta gizaki guztiok berdinak garelako munduan.

* Film on bat egiteko ez da gauza handiren beharrik.

Lehenengo tesiaz arituko gara hasieran, hauxe baita gure ustez tesi nagusia. Egia esan, bigarren tesi gisa jarri duguna lehenengoaren arrazoibide bat baino ez da, azken batean zergatik den film bikaina erakusteko idatzi baitu.

(a) Tesiaren aurkezpena:

Lehenengo paragrafoan, edo, hobeto esanda, lehenengo esaldietan egiten du tesiaren aurkezpena: *“Japondarrek ere baidute zinema eta, harritzekoa, Ortega y Gaset-en perspektibismoaren argibide polit batekin aurkeztu zaizkigu”*.

(b) Tesia sinetsarazteko arrazoibideak:

Lehenengo paragrafoan bertan ekiten dio arrazoibideak emateari, egoera lauzpabost lerrotan aurkeztu eta gero, galdera batekin amaituz: *“nola gertatu dira gauzak?”* Egoerak eta argumentuak berak argi planteatzen dute galdera filosofikoa; “egia” ezagutu ahal da ala nork bere “egia” baino ez? Hori bigarren paragrafoaren azken galderan ikus dezakegu: *“Honek berak ere, egi-egia esan ote digu?”*.

Eta hirugarren paragrafoa heldu gara. Nahiz eta galdera filosofikoari erantzunik –ba ote dauka? – ez eman, *“basoan gertatuaren berri nahizez ongi jakin, zenbait gauza ikasi ditugu horratik, eta ez nolana hikoak”*. Jarraian dator ikasitakoa: mundu guztian *“gizonak era batetsukoak direla”, “beste greinez kanpora, nork bere burua goraino jaso eta besterena lurreraino jatxi beharra duela eragile”*.

Laugarren paragrafoa –guk bigarren tesia bezala jarri duguna– filma ona dela baieztatzeko gaineratu du: gauza handirik gabe –dirurik ote?– film eder bat egin dutela, alegia.

(c) Tesiaren baieztapena eta ondorioa:

Hirugarren paragrafoaren amaieran dagoeneko ikus genezakeen tesiaren baieztapena, hau da, *“Japonen eta hemen gizona –eta emakumea– izukaitz baino bildurriago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago dela, alegia”*. Tamalez, gizakiaren izaerari buruzko irakaspena ez da oso baikorra.

*** Film on bat egiteko ez da gauza handiren beharrik**

Kritikaren laugarren paragrafoan Mitxelenaren ustez film on bat egiteko zer behar den ikus dezakegu: *“baina “zer” horiez da dendetan salgai daudenetakoa”*. Paragrafoa irakurri ondoren, garai haietan, orain bezalaxe, jende asko kexu zela pentsa dezakegu, diru gabe ez zegoela film on bat egiterik esanez. Baina, Mitxelenak dio, gure ustetan, kontua ez dela dirua, “talentua” baizik. Eta adimena landu egin behar da.

G

GAI A

Koldo Mitxelena zinema kritikaria



LA STRADA, 1954, Federico Fellini (1920-1993)

1. Zein da tesia edo tesiak, bat baino gehiago balira?

Gai arrunta izanda ere, gizatasunari buruzko film on bat egin daitekeela.

(a) Tesiaren aurkezpena:

Lehenengo paragrafoan argi eta garbi inolako itzulitururik gabe egiten du tesiaren aurkezpena: *“azkeneko zenbait urtez ikusi ditudan filmetan onena”*. Bigarren paragrafoan ere tesiaren aurkezpena egiten jarraitzen duela esan dezakegu: *“non dagoen film honen indarra. Sorginkeria dirudi. Gaia arrunta du...”*. Dakusagunez, *“filmetan onena”* eta *“gaia arrunta”*. Jarraian gai arrunta azaltzen du: pertsonaiak, egoera eta gertakizunak.

(b) Tesia sinetsarazteko arrazoibideak:

Zergatik da ona? Mitxelenaren erantzuna hirugarren paragrafoan dugu: *“Gizatasuna dario-lako noski, jauregietan adina etxola eta kalekantoietan aurki daitekeen gizatasuna”*. Eta gizatasun honen adibidetzat filmaren eszena bat dakarkigu: *“Zampano buru eta bihotz-gogorren itsas ertzeko negarra”*.

(c) Tesiaren baieztapena eta ondorioa:

Aurreko paragrafoari buruz esandakoaren barnean ere tesiaren baieztapena aurki dezakegu. Baina biribiltzeko, hau da, halako istorio xumea aurrera ateratzeko, behar-beharrezkoa da aktoreen lana: *“Personak arruntak eta dohai berezirik gabeak badira, ez direla horrelakoak antzezkeriak”*. Eta izenak aipatuz ematen dio amaiera laugarren eta azken paragrafo honi.



ZAZPIGARREN ZIGILUA, 1956, Ingmar Bergman (1918)

1. Zein da tesia edo tesiak, bat baino gehiago balira?

Film batean gairik goitiarrena –heriotzaren ondokoa– hizkuntza berririk asmatu gabe erakustea.

(a) Tesiaren aurkezpena:

Lehenengo bi paragrafoetan luze aritu da Mitxelena tesiaren aurkezpenaz, halako gai garrantzitsuak eskatzen duen moduan. Izan ere, film honen gaia gizaikiaren “gairik handienen” artean koka genezake. Zer da, bestela, heriotzaren ondokoa? Mitxelena, beste asko bezala, dudan zegoen halako gaia jorratzen duen filmaren aurrean. Hizkuntza zaila espero omen zuen. Horixe pentsarazten digu literaturaren bi berritzaileen aipamenak: Gongora eta Joyce. Behin bere aurreiritziak azalduz gero, oker zegoela jakinarazi digu berehala: “*Ingmar Bergman-ek (...) Ongi dakien eta ongi dakigun hizkuntzan dakarren mandatua, ordea, ohi ez bezalakoa da hagitz*”. Gaia ere ez omen da ohikoa zineman.

(b) Tesia sinetsarazteko arrazoibideak:

Aurreko kritikekin alderatuta, hauxe da, zalantzarik gabe, luzeena. Hori dela eta, hurrengo paragrafoetan zehatz-mehatz eta aipamen ugariaren bidez behar dituen arrazoibide guztiak eskaintzen dizkigu tesia sinetsarazteko. Paragrafoz paragrafo aztertuko dugu.

3. paragrafoa. Egoera aurkeztu egiten du: Zalduna itsasertzean Heriotzarekin.

4. Heriotzaren aurrean betiko galderak: “Jainkoa, hil ondoko irautea ala eze-reza”. Orduan erantzunen bila hasiko da zalduna, eta berarekin batera zuzendaria; baita gu ere. “*Jainko bila dabilela esan daiteke*”. Eta hemen bi aipamen: Orixe, euskalduna eta Pascal filosofo frantsesa; biak kezka erlijiosoak zituztenak.

5. Zaldunaren ondoan ezkutaria dugu: “*Federik ez du eta ez du fedearen beharrik*”. Kontrajarpena, Zaldunaren kezkarri indar handiagoa emateko.

6. Beste kontraesan bat, hauxe: Suediatik –munduko ongizate gizarterik aurreratuenen– “*Jainkoaganako deadar larri hau*” etortzea.

7. Gaia aurkeztu eta gero, nola zinemaratuta dagoen aztertzeari ekingo dio: “*Gairik goitiarrena ez da ezer zineman ez beste edozein artetan irudi egokietan mamitzen ez bada*”. Eta erantzuna paragrafoan bertan: “*Film honetan ez dago honelako desegokitasunik*”.

8. eta 9. Berrero filmari buruz dihardu. Filmean sinbolo asko aurkitu ditu eta guztien esanahia ez du garbi ikusi, nahiz eta batzuenak bai: “*Joxe komeriantea, emaztea eta semea, gure artean dabilen Familia Santuaren errainu bizia*”. Hainbat sinbolok ez ote du filmaren aberastasuna adierazten? Bederatzigarren paragrafoan zinemaren defentsan esaldi bat irakur daiteke eta aipatu beharrian gaude: “*Gezurra dirudi, baina egia da zinemak, hain beharatu eta gaitzetsia izan den mintzabide honek, ez duela, mandaturik zuenean, mandatu bat besterik ekarri, behinolako Mendiko Hitzaldoi hartako mandatua: zorronekoak...*”.

(c) Tesiaren baieztapena eta ondorioa:

Azken bi paragrafoetan aurkeztu du Mitxelena ondorioa, Apokalipsiaren aipamena ekarriz: “*Zai daude eta zai gaude atea noiz irekiko, atean zer ikusiko...*”. Baina “*Ez dugu atea zabaltzen ikusi. Ezin zezakeen inork erakuts...*” Eta betiko galderek galdera izaten jarraituko dute, baina oraingo honetan zinema hizkuntzaren bidez maisuki plazaratuta.

3. Ondorio orokorrak: zinema kritikari lanean Mitxelenak zituen berezitasunak

Ikasleei emandako neure iritziak jarriko ditut.

Ondorio orokorrak: esan zinema kritikari lanean Mitxelenak zein berezitasun zituen

1. Mitxelena kritikari profesionala baino **ikusle kritikoa** dela esan dezakegu. Halaxe azaldu genuen Mitxelena zinema kritikariaren xedea edo helburuak aztertu genituenean: “*Mitxelena naren helburua euskaraz atsegin zuen gai bati buruz, zinemaz, hain zuzen, idaztea zela, libreki, gogoz eta atseginez, irakurleei bere iritzia helarazteko*.” Eta hauxe da gure asmoa proiektu honekin: zinema kritikak egiten ikastea edo, zehatzago, ikusle kritikoak sortzea.

2. Mitxelenak kritika guztietan bere **iritzia** ematen du. Beti esaten digu, nahiz eta zeharka izan edo, hobeto esanda, estilo literario bikainaren bidez, filma ikustera joan behar dugun ala ez: “*Orain, gero eta hobeto gabiltza, Hollywood-etik ere deus gutxi etortzen zaigu. Honi eskerrak, eskasiak ere alde onak baditu eta, zeluloide zaharra agertzen zaigu noizean behin. Behin behintzat ikusgarria: aspaldiko Chaplinen “City Lights” maitea*” (1, 2). Jakina, lau film hauek maisulanak direnez, ez dago dudarik. Hala eta guztiz ere, bere balorazioa egiten du.

3. Mitxelenak ez ditu filmaren alderdi gehienak aztertzen, baina, hori bai, film guztietan aztertzen dituen alderdiak gaia eta istorioa dira. Guztien gainean bere arreta **filmaren mezuak** pizten duela esan dezakegu. Filmaren gainontzeko alderdiak aztertzen baditu, beti alderdi horren zerbitzuean izango da; hala nola, antzezleen lana *La Strada* filmean edo hitzik gabeko filmen balioa *City Lights*en.

4. Goian esan dugu, Mitxelenak aztertzen duen alderdia **argumentua** dela. Eta honi lotuta Mitxelenak **narratibio teknikak** –nola garatu istorio bat–

ondo ezagutzen dituela esan behar dugu. Ezin ahaztu Mitxelena hizkuntzalaria zela. Lau kritika horietatik atara ahal dugun ideia bat zera litzateke: film on bat egiteko istorio on bat behar dela eta istorio hori ondo garatu eta zinemaratu behar dela. Nahiz eta *gidoi* hitza inoiz ez aipatu, gidoiaren beharra ondo azpimarratuta dago kritika guztietan, gidoia istorioaren egokitzapena baita, istorioa irudietan jartzen laguntzeko, zinema bihurtzen, alegia. Adibidez, *Zazpigarren Zigilu* filmean esaten digun bezala: “*Gairik goitarrena ez da ezer zineman ez beste edozein artetan irudi egokietan mamitzen ez bada*”. Eta jarraian, nire ustez, paragraforik argigarriena:

“*Beste irakaspen atseginago bat ere badakarkigute. Film on bat egiteko ez da gauza handiren beharrik: bospasei lagun, basabazterra, etxe edo eliza erdi hondatu bat. Kolore bizirik ere ez, eguzkiaren basoko harrigarritzko ibilerak – “osto-pilo eta izar izunak habe”- eta euriaren etengabe emana begietaratzeko. Beste zerbait ere behar da apika, baina “zer” hori ez da dendetan salgai daudenetakoia”* (*Rashomon*, 4).

5. Kritikak egitean, Mitxelenak film bakoitzaren alderdirik ikusgarriena nabarmentzen du, eta horrek, aipatu berri dugunez, gaiarekin edo argumentuarekin zerikusi zuzena izan ohi du. Eta horretan oinarritzen du bere **tesia**. “*Gehiago esan behar banu ez nintzateke noski gauza izango. Ez bainuke adieraziko non dagoen film honen indarra. Sorginkeria dirudi. Gaia arrunta du eta zarpail xamarra*” (*La Strada*, 2). Segidan tesia arrazoitzeari ekiten dio.

6. Tesia justifikatzeko erabiltzen dituen **arrazoibideak** ondo garatzen ditu. Bere argudioak ederki justifikatuta daude eta beti aipamen egokiez lagunduta eta defendatuta. Aipamenak askotarikoak dira: kulturalak - Orixe eta Pascal, *Zazpigarren Zigilua*, 4- edo zinemarenak - “*Aurrerapen galant horiek...*”, *City Lights*, 6. Filmaren beraren adibideak ikusi ditugu - “Az-



ken-aldea, batez ere, berebizikoa da”, *La Strada*, 3; baita, batzuetan bestekin konparazioak ere - *City Lights* eta *Limelights*-.

7. **Aipamenei edo erreferentziei dagokienez**, Mitxelenaren kultura zabal eta sakona dela esan dezakegu. Literaturan aipamen modernoak eta klasikoak - “*gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala*”, *Rashomon*, 3- ikusi ditugu, anglosaxoia - Joyce- eta espainola - Góngora-, frantsesa eta Euskal Herrikoa. Filosofia aldetik berdin gertatzen da, Pascal XVII. mendeko frantses filosofoaren ondoan, Ortega y Gasset dugu. Bere garaiko pentsalariak ere ezagunak dira berarentzat - Maraño. Kristauen kultura hezia izan dela argi adierazten du Bibliari buruzko aipamenetan. Eta hori guztia lau kritika soilik aztertuz!

8. **Idazkera** dotorea eta argia, zehatza eta aberatsa da aldi berean, dudarik gabe. Baliabide literario ugari ikus ditzakegu. Mitxelenaren umore fina eta ñabardura ironikoa edonon eta noiznahi agertzen zaizkigu. Kontuan hartzen baditugu zein urtetan idatzi zuen, hau da, euskara estandarizatu gabe zegoenean, eta aukeratutako gaia - orduan euskaraz zinemari buruz zenbat ote zen idatzia? - harrigarriagoa irudituko zaigu Mitxelenak irekitako bidea. Eta zein erraz ulertzen diren bere iritzia eta argudioak! Guztiontzat adierazgarriak diren hitz teknikoak eta adierazpideak aukeratzeko badaki. Amaitzeko zinemasale euskaldun guztiontzat eredarria den paragrafoa oso-osorik jarriko dut.

“*Artean keinuka -gor-mutuen antzera- ari zitzaigun zinema hasi zen behin, ez os gaxterik, hizketan. Hizketan ez ezik, soinua jotzen ere ikasi zuen. Are gehiago, marraka, marrua, kurrinka, orroa, makarroa, irrintzi eta arrantza egiten ere bai. Kolore xuri-gorri politak etorri zitzaizkion. Hazi ahala, irudiak larritzen zihozten, gero eta handiago. Luze-zabalean handitu ez ezik, loditu ere egin omen dira. Argi-oihaleko irudi horietako batek besoa luzatzen duenean, makurtu egiten omen gara, uki ez gaitzan. Orain irudipen hutsa da, baina luzarogabe, Jainkoa lagun, bekainean hartuko dugu muturrekoa, erne ez bagabiltza*” (*City Lights*, 5).

9. Aztertu ditugun lau kritika horietan Mitxelenak erabilitako eskema, ikusi dugunez, bat dator argudio testuarekin: **tesia**ren **aurkezpena** -gehienetan lehenengo edo bigarren paragrafoan egiten du eta aurkezteko era batzuk ditu irakurlea inoiz ez asperetzeko; **tesia**ren **gorputza** edo **tesia** **sinetsarazteko arrazoibideak** -paragrafo gehien erabiltzen duten alderdia eta adibide, aipamen eta arrazoi ugariz beteta dago; eta **tesia**ren **baieztapena** edo **ondorioa** -azken paragrafoan eta tesia azpimarratzeko batzuetan galdera erretorikoak egiten ditu.

10. Hasieran, Mitxelena kritikaria baino ikusle kritikoa zela idatzi dugu. Horretaz ez dago zalantzarik, baina kritika horiek ondo irakurritz gero, zinemaz jardun zuen hizkuntzalaria baino gehiago zela esan daiteke; hau da, **Koldo Mitxelena zinema kritikaria** ere bazela.

4. Ikasleen ekarpen berriak

Atalaren izenburuak dioenez, ikasleen lana baloratzeko beraiek egindako ekarpen berriak banatu nizkien, bi helbururekin: alde batetik, ikasleek ikus zezatela beren lanak aintzat hartzen direla, eta bestetik, jakin zezatela kritikak egitean denok zerbait berria aurkitzeko gauza garela.

Azken ekarpenak

Jarraian daukazue, zuen lanak irakurri eta gero, nirean agertzen ez dena; hitz batez, hauexek dira nik ikusi ez nituenak eta zuek egin dituzuen ekarpen berriak

Zein da Mitxelenaren helburua zinema kritikak egiten dituenean?

1. Informazioa ematea; filma zeri buruz den esatea eta filmari buruzko iritzia ematea: ona edo txarra den jakinaraztea.

2. Filmak eta filmen gaiak aztertzea; filmen mamia ateratzea: alde onak eta alde txarrak.

3. Mitxelenak bere hitzen bidez irakurleak gogoeta egitea lortzen du.

4. Mitxelenak, literatur kritika gustukoa zuenez, zinema kritika literatur kritika osatzeko atal bat bezala izan zezakeen.

Aipatu Mitxelenak aztertzen dituen filmaren alderdiak:

1. Pertsonaiak.

2. Ingurunea, filmaren kokapena eta eszenaratzea (*"kamio hautsez..."* La Strada, 2).

3. Filmaren garaia, noiz egin zen.

Ondorio orokorrak: zinema kritikari lanean Mitxelenak zituen berezitasunak

1. Kritiketan bere pentsamenduak oso ondo islatzen ditu.

2. Idazkera bikaina. *"Nire euskara hobetzeko Mitxelenaren liburuak gustura irakurriko nituzke"*.

3. Kritika bat egiteko erabili behar den objektibotasuna ondo erabiltzen du: ez gehiago, ez gutxiago.

4. Zinema kritika aitzakia da edo-

zein gairi buruz bere jakinduria azaltzeko; baita bere iritzia emateko ere.

5. Batzuetan kritika batean tesi bat edo ideia bat baino gehiago azaltzen ditu, bere arrazoi eta ondorio bereziak emanez.

6. Filmak norentzat diren egokiak esan ohi du.

Esperientziaren ebalua-



zica

Azterketak

Azterketa batean honako idazlana eskatu nien ikasleei: *Egin ikusitako azken filmaren kritika.*

Egia esan, kritika gehienak oso onak izan ziren. Ikasle batzuek izugarri kritika interesgarriak burutu zituzten. Nire ustetan, ikasleen lanetan bi alderdi hauek azpimarratzekoak dira:

1. Orain ikasleek filmari buruzko iritzia ematerakoan, arazoitu egiten dute. Ez dute *“gustatzen zait”* soilik esaten, *“zergatik gustatzen zaidan”* esaten ere saiatzen dira.

2. Orain zinema kritika egiteko hiztegia eta ezaguerak badituzte, eta hori nabaria da idazkeran. Ez daukate arazorik hizkuntzaren aldetik kritikak burutzeko.

Epilogo: praktika bat

Amaitzeko, bideo-klubetan gaurko film bat aukeratu nuen denok ikusteko, eta gero kritika egin zezaten eskatu nien. Filma 1999ko Donostiako Zinemaldian Urrezko Maskorra irabazi zuen *C'est quoi la vie?* izan zen.

Hurrengo oharrek kontuan hartzen baditugu, oraingo honetan emaitzak hobeak izan direla esan dezakegu:

a) Ikasleak ez daude halako filmak ikusten ohituta eta ondorioz, gehientzat ez zen gustukoa izan.

b) Atsegin ez duguna kritikatzera, alderantziz dirudien arren, askoz zailagoa izan ohi da, ez baita batere erraza zergatik ez zaigun gustatzen esatea.

Ondorioa: esperientziaren irakaspak

Gazteak eta euskara

Gazteen arteko harremanetan euskara gutxi erabiltzen dela entzuten ari gara behin eta berriro. Ikusi besterik ez dago Hik Hasik argitaratu duen *Gazteen euskararen erabilera sustatzeko gida* liburua. Gehienetan atsedenaldirako elementuak edo bitartekoak erdaraz daudelako gertatzen da. Horixe gertatzen da zinemarekin, jakina.

Zenbat film ikusten dute gazteek as-

tean zehar zinema aretoetan, bideoan edo telebistan? Film guztiak euskaraz ikustea ezinezkoa denez, behintzat filmen iruzkinak edo kritikak euskaraz irakur edo entzun ditzatela. Eta gero, beren iritzia ere euskaraz emateko gauza izango dira. Ez al da hobe filma jatorrizko bertsioan ikustea eta iritzia euskaraz ematea alderantzikoa baino? Hau da filma euskaraz ikustea eta gero erdaraz komentatzea? Tamalez, hori gertatu zait: ikasleak euskarazko film bat ikustera eraman eta atera eta berehala erdaraz iritzia emateari ekin. Bada, esperientzia hau hori saihesteko baliagarria izan dela uste dut.

Orain arte esandakoa beste arlo batzuetara pasa dezakegu. Gaur egungo gazteak zinemara joaten dira, baita musika entzutera ere... Adibidez, bideojokoei dagokienez, zenbat ordu pasatzen dute egunero? Eta nork eman die haiei buruzko hiztegia? Eta haiei buruzko kritikak -iritzia ematen- euskaraz

egiten irakatsiko bagenie? Hitz batez, lan egiteko arlo zabala dugu aurretik.

Koldo Mitxelena zinema kritikaria

Ibon Sarasolak dio “...euskaraz zinemaz gehien, oraintsu arte, eta ondoren idatzi duen Koldo Mitxelenak...” –*Euskara batuaren ajeak*, 83–.

Esperientzia honen helburua ikasleei zinema kritikak egiten irakastea izan da, baina Mitxelenaren zinema kritiketara egindako hurbilketa txiki honen ondorioz, Ibon Sarasolak bezala, euskaraz zinemaz idatzi nahi duen ororentzat Mitxelenaren lana ezagutzera ezinbestekoa dela esan behar dugu.

Eta hauxe da bigarren irakaspena: Koldo Mitxelena zinema kritikaria ere badela. Hortik lanaren izenburua eta sorrarazten duen grina: ikerketa jarraitzea; baina, ez euskara irakaslearen ikuspuntutik, zinemazalearen aldetik baizik. Zinema kritika arloan ere badugu zer ikasia Mitxelenarengandik.



G A I A
Koldo Mitxelena
zinema kritikaria

G

Alvaro Marchesi

Madrilgo Unibertsitate Complutensean
Psikologia Ebolutiboan katedraduna.
“LOGSEren aita” bezala ezaguna da.



Ikasleek hamar minutu baino gehiago
hizketan ari den irakasle bat ikusten dutenean,
ahalko balute, zapping egin eta aldatu egingo
lukete. Ikasleak irakasteko gure eredu
tradizionalera egoki daitezen nahi dugu, eta ez
dira egokituko mundu desberdin batean bizi
direlako.



Alvaro Marchesi

E

Bigarren
Hezkuntzako
irakasle izan nahi
duenak aurrez
erabaki eta
aukeratu beharko
luke hori, bestela
ez baitira maila
horretan hezteak
duen arduraz eta
garrantziaz
jabetzen

Hezkuntzako Gizarte
Eragileen BILGUNEAK *Bi-
garren Hezkuntza: gabe-
ziak eta erronkak. Kalitate-
aren Legea* izeneko jardun-
aldia egin zuen urtarrila-
ren amaieran. Besteen ar-
tean, Alvaro Marchesik,
Madrilgo Unibertsitate
Complutensean Psikologia
Ebolutiboan katedradunak,
hitzaldi bat eskaini zuen.
LOGSE egiten ibili zen bera,
eta dozena bat urte geroa-
go legearen inguruko balo-
razioa egin digu. Gabeziak
eta gehitutako arazoak az-
tertzearekin batera, aurre-
ra begira Kalitate Legeak
ekarriko duena eta hezkun-
tza komunitateak egin be-
har duena izan ditugu aipa-
gai.

**Zein da LOGSEren inguruan egi-
ten duzun balorazioa?**

LOGSE lege positiboa eta beharrez-
koa izan zen 1990ean. Pentsatu beste-
rik ez dago nolakoa izango zatekeen
orain hezkuntza sistema 1970eko Hez-
kuntzako Lege Orokorrekin jarraitu
izan bagenu. Beharrezkoa eta positi-
boa izan zen Haur eta Lehen Hezkun-
tza ekarri zuen aldaketagatik, derrigo-
rrezko hezkuntza hedatu zuelako eta
Lanbide Heziketan eredu berria jarri
zuelako.

Ikasleen garapena beste modu ba-
tera ulertzea ekarri zuen, ez hain modu
akademikoan. Finean, aldaketa nabar-
mena ekarri zuen, baina arazo esangu-
ratsuekin egin zuen topo.

**Garbi dago planteatzen ziren hain-
bat hezkuntza aldaketa paperean gel-
ditu direla, hots, praktikan ez direla
garatu. Zein izan da hori gertatzeko
oinarriko arrazoa?**

Hezkuntza aldaketak bere horretan
gelditzen badira, ez dira aurreikusitako
helburuak lortzen. Beharrezkoa da
hezkuntza erreforman beste aldaketa
eta erlazio batzuk ere egitea.

Erreformek porrot egiten dute bi
baldintza ematen ez badira. Bata, hez-
kuntza erreformak ez direla hezkuntza
erreforma soilik pentsatzea. Eta bestea,
eskola ez dagoela ikasleek soilik ikas





dezaten bideratua, baita gurasoek eta irakasleek ikastera ere. Izan ere, erreformaren helburua da erreforman parte hartzen duten eragile guzti-guztiekin ikasten jarraitzea. Hori da gaur eskatzen dena, eta noski, neurri kontserbadoreak eta eraginkortasun gutxi dutenak hartzea baino konplexuagoa da.

Azken finean, hezkuntza erreformak ez du hezkuntzako soilik izan behar, hezkuntzak ezin ditu gizartean dauden arazo guztiak konpondu. Hori eskatzea gehiegi eskatzea da. Horregatik, beste ikuspegi batzuetatik eta beste baldintza batzuk aintzat hartuta konpondu behar dira.

Zein dira baldintza horiek?

Hiritarren maila soziokulturala, hezkuntzara bideratutako bitartekoak, gurasoak euren seme-alaben heziketan konprometitzeko modua, familien maila kulturala eta abar. Faktore horiek guztiak gauzak hobeto edo okerrago funtziona dezaten eragiten dute.

Zenbateko eragina dute familiaren maila kulturalak eta familiaren konpromisoak?

Familiaren maila kulturala eta espektatibak oso garrantzitsuak dira irakasleen garapena bermatzeko. Horrez gain, egin ditudan ikerketen ondoren, familiaren konpromiso mailak ere garrantzi izugarria duela konturatu naiz. Badaude maila kultural eskasa duten familiak, baina hezkuntzarekiko konpromiso itzela dutenak. Nahiz eta gurasoek ikasketarik ez izan, izugarritzko interesa dute seme-alaben heziketan, eta interes horrek orokorragoa den beste faktorea (maila kulturala eta espektatibak) osa dezake.

LOGSE ezarri zenetik 10 urte pasa ondoren, hainbat arazok konpondu gabe jarraitzen dute. Zein dira garrantzitsuenak zure ustez?

Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza, irakasleen egoeraren gehiegizko homogeneotasuna, irakasleen egonkortasun eza, ezintasun gehiagoko haurrak dituzten ikastetxe-

entzako laguntzarik eza, ordu, ikasgai eta irakasleen antolaketa desegokia eta LOGSEren inguruan zabaldu den irudi ezkorra.

Zein gabezia ikusten diozu Bigarren Hezkuntza irakasleen prestakuntzari?

Bigarren Hezkuntzako irakasleen hasierako prestakuntza gaizki planteatuta dago, tamalgarria da, salbuespen batzuk izan ezik. Agian promozio eredu aldatu beharko litzateke. Bigarren Hezkuntzako irakasle izan nahi duenak aurrez erabaki eta aukeratu beharko luke hori, bestela ez baitira maila horretan hezteak duen arduraz eta garrantziaz jabetzen. Horregatik, planteamendua gaizki dago. Esate baterako, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko doktordarutza kurtsuan arazo bat sortu zait. Hezkuntzaren Institutura iritsi zen ikasle bati hiru liburu eman zizkieten eta matrikula ordaindu ondoren azterketa egiteko eguna jarri zioten. Azterketa test modukoa zen, hots, asmatutako galderak puntuatzen dira, gaizki egindakoak kendu gabe. Hori gainditu eta gaikuntza titulua lortu zuen. Ez dut uste horrekin ikasle hori Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko prestatua dagoenik.

Irakasleen egoeraren gehiegizko homogeneotasunak zer ondorio ditu?

Irakasleen artean autoestimua falta sortzen du. Alde batetik ez dago pizgarri profesionalik irakasleek beraien gaitasunak gara ditzaten eta horregatik baloratuak izan daitezten. Eta bestetik, ez da aintzat hartzen irakasleen lanak eskakizun batzuk dituela.

Irakasleen egonkortasun eza konpondu gabe dagoen beste arazo bat dela esan duzu.

Bai, hezkuntzaren kalitateari eta irakasleen moralari negatiboki eragiten dien arazoa da, batez ere irakaskuntza publikoan, ez hala irakaskuntza kontzertatuan. Egia da lekuz aldatzeko aukera irakaskuntza publikoan eskubide bezala ulertzen dela, baina gehie-

gikeriaz erabiltzen bada ez da ona hezkuntzaren kalitatearentzat. Era berean ez da ona administrazioak duen gaitasuna ikastetxeetako plantillak mugituz irakasleen artean egonkortasun eza sortzeko. Laburtuz, egonkortasun eza ez da ona hezkuntzaren kalitatearentzat.

Arazo horri ez zitzaion heldu eta tirabirak sortzen jarraitzen du. Ez dut hemengo egoera ezagutzen, baina Madrilen adore eta gogo falta nabaria dago irakasleen artean. Irakaskuntza publikoko irakasleek zera esaten dute: batzuk ezin dugu aldatu eta besteoi aldarazi egiten digute ikasle nahikorik ez dagoelako edo gaiak berrantolatzen direlako. Orduan, nola hasiko gara proiektuekin hurrengo urteetan nor egongo garen ez baldin badakigu?

90eko hamarkadan gizartean gertatu diren aldaketek zenbait arazo berri sorrarazi dituzte. Horietako bat teknologia berriek sortu dutena da. Nola ikusten duzu gai hori?

Ikasleen ikasteko modua aldatzen duen beste kultura bat sortu du. Garrantzitsuenak ez da ordenagailuak, informazio ugari eta Internet egotea, bai zik eta ikasleek ikaskuntza prozesura gerturatzeko beste modu bat daukatela. Arreta gutxiago duten ikasleak dira,

Mugikortasuna hezkuntzaren kalitateari eta irakasleen moralari negatiboki eragiten dien arazoa da. Egia da lekuz aldatzeko aukera irakaskuntza publikoan eskubide bezala ulertzen dela, baina gehiegikeriaz erabiltzen bada ez da ona hezkuntzaren kalitatearentzat. Era berean, ez da ona kalitatearentzat administrazioak duen gaitasuna ikastetxeetako plantillak mugitzeko.

motibazio gutxiago dutenak, esfortzu gaitasun gutxiagokoak eta beraien ikasketetan indibidualistagoak. Batez beste astean hiru ordu ikusten duten programa batek aspertu egiten baditu, aldatu eta beste bat ikusten dute. Hamar minutu baino gehiago hizketan ari den irakasle bat ikusten dutenean, ahalko balute, zapping egin eta aldatu egingo lukete. Zorionez edo zoritxarrez, ezin dute horrelakorik egin.

Ez da bigarren mailako gaia. Lehen Hezkuntzako irakasleek ikasleen maila jaisten ari dela esaten dute. Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko irakasleek hori esatea ulergarria da, baina Lehen Hezkuntzako 3. mailan ez. Gauza ez da ikasleen maila jaisten ari dela, baizik eta ikasleek beste modu batera ekiten diotela ikaskuntza prozesuari; beste era batera ikasten dutela. Horregatik, orain arte bezala irakatsi nahi dion irakasleak bere eredura ez dela egokitzen ikusten du. Ikasleak irakasteko gure eredu tradizionalera egoki daitezenez nahi dugu, eta ez dira egokitu mundu desberdin batean bizi direlako. Aldaketa hori oso garrantzitsua da, ikasleen motibazioa eta interesa baldintzatzen dituelako.

Horri loturik, talde lana garrantzitsua da. Kultura indibidualistagoa bizi dugu, eta ez soilik gizartea indibidualistagoa eta konpetitiboagoa delako, baizik eta aisialdiko sistemak gero eta indi-

bidualistagoak bihurtzen ari direlako. Makina eta irudiekiko duten pasioak ez die uzten guk egiten genituen beste ekintza batzuk egiten. Aldaketa hori oso kontuan izan behar da.

Seme-alaben ohitura aldaketak aipatu ditugu, baina familia bera ere aldatu egin da. Horrek zer ondorio izan ditzake ikastetxeetan?

Familiak anitzagoak dira eta eskakizunak ere beste batzuk. Bikote aldaketa handia dago eta guraso egonkorrak dituzten familiak gero eta gutxiago dira. Beste familia eredu batzuk sortzen ari dira eta horiek beste eskakizun batzuk dituzte, beste balio batzuk, eta hezkuntza ulertzeko beste modu bat. Hezkuntzako profesionalok izaten ditugun kontraesanekin egiten dute topo gurasoek ere. Guretzat irakastea zaila baldin bada, eurentzat ere bai. Ez dute jakiten zein diren arauak, eskakizunak, zer egin eta nola irakatsi. Gizarteko kontraesanak irakasteengana eta gurasoengana zabaltzen dira. Horregatik, eskola eta familiaren arteko lotura aldatu egin behar da.

Kultur aniztasunari ere erantzun beharko dio eskolak. Nola ikusten duzu hori?

Ez dakit hemengo egoera nolakoa den, baina beste zenbait komunitate autonomotan (Madril, Katalunia...)





geldiezinezko egoera da eta hori izango da hurrengo 10 urtetako itxura. Eta horrek, noski, izugarri aldatzen ditu irakaskuntzako baldintzak. Etorkinen sartzea oso aberatsa da, baina konpontzeko zailak diren jomugak planteatzen ditu, batez ere hizkuntza aldetik. Irtenbidea ez da beste eskoletan ikas dezate-la esatea.

Gizarteko arazoak konpontzeko denak hezkuntzari begira jartzen dira. Ez al zaizu iruditzen hezkuntzari gehiegi eskatzen zaiola?

Bai, dudarik gabe. Gizarteak gero eta gehiago eskatzen die eskolari eta irakasleei. Arazo bat dagoen bakoitzean hezkuntza sistemak konponduko duela uste da. Bideetan gero eta istripu gehiago daudela eta bide heziketa irakatsi behar zaie. Eta pentsa gai horretan zein zentzugabea den irtenbide hori.

Gauzak dauden bezala, Madrilgo Gobernuak Hezkuntza Ministeritzak Kalitatearen Legea eskaintzen du egoerari erantzuna emateko. Zer iritzi duzu Lege horren inguruan, oro har?

Esaten eta iradokitzen dutenaren arabera, Ministeritzaren proposamena ez da nire gustukoa. Arazoei berehalako irtenbidea ematen die, baina neurri horiekin konpontzen ez diren beste arazo batzuk sortzen dira.

Kalitate Legeak eskaintzen dituen neurriak tradizionalak eta kontserbadoreak dira. Aldaketak ikasleen garapenean oinarritzen direla uste dut, eta ez ditu kontuan hartzen gizarte, familia eta hezkuntza testuingurua, ez eta ba-

liabideak, prestakuntza eta nire ustez aintzat hartu beharko lirakeen beste hainbat gai.

Edozein modutan, edozein lege egin aurretik, gertatzen denaren inguruko balorazio zehatza egiteko eskatu beharko genioke gobernuari. Ondoren, hainbat alternatiba dituen dokumentu bat aurkezteko, eztabaida irekitzeko, eta hortik abiatuta egokien uste duen legea egiteko.


Legeak eztabaidagarriak diren hainbat neurri planteatzen ditu. Lehenengoa Bigarren Hezkuntzako 2. zikloan ikasleak gaitasunen arabera ibilbidetan banatzea da. Zein abantaila eta desabantaila ikusten dizkiozu horri?

Abantaila bakarra du: irakasleak ikasleari bere gaitasunaren arabera irakats diezaiokeela eta ikasle taldeak homogeneizatzen dituela. Baina horrek hainbat arazo sortzen ditu, bereziki bi. Bata ikasleak bere gaitasunaren arabera ibilbidetan banatzeak ibilbideei balio zehatz bat ematen diela, hots, baloraziozko konnotazioa hartzen dutela: batzuk onak dira, beste batzuk erdi mailakoak eta besteak txarrak. Konnotazio negatiboko ibilbideek espektatiba ezkorragoak sortzen dituzte, eta ondorioz, ikasleak gutxiago saiatzten dira eta gutxiago ikasten dute.

Hoberena da desberdintasunak sortzen dituzten ibilbide horiek sortu gabe, ikasle guztien maila igotzea. Eginkizun zaila da, baina bestela, batez besteko maila igotzeko ordez ikasleen arteko desberdintasuna handitzeko arriskua dago, hau da, batzuen maila igotzekoa eta besteena ez. Ikasi nahi ez duten ikasleei, atzeratuta daudenei eta motibaziorik ez dutenei laguntzeko neurriak hartu behar dira, baina ibilbide desberdinak sortu gabe.

Neurri desegokia deritzot, baina Bigarren Hezkuntzako irakasleen %70 ados dago. Ostera, gurasoen %25 baino ez dago alde.

Gobernuak planteatzen duen bigarren neurria ikasleen atzerapenei



irtenbidea emateko kurtsoa errepikatzea da. Ados al zaude neurri horrekin?

Momentu honetan hiru aldiz errepika daiteke: Lehen Hezkuntzan behin eta Bigarren Hezkuntzan bi aldiz. Ez dut uste errepikapenak ugaritzeak ikasleen arazoak konpontzen dituenik. Europar Batasuneko inongo herrialdek ez du uste derrigorrezko hezkuntzan hirutan baino gehiagotan errepikatzea ona denik. Eta inkestek adierazten dutenez, errepikatu duten ikasleak ez dira hobeto ibiltzen.

Errebalidak zeresan handia eman du. Zein iritzi duzu horren gainean?

Errebalida positiboa da Batxilergoaren amaieran. Egokia deritzot Batxilergoaren amaieran kanpoko azterketa bat egoteari irakaskuntza sare guztientzat eta eskola guztientzat antzeko mailak eta kontrolak ziurtatzeko. Azterketa bateratzailea ez egotea diskriminatzailea izan daiteke.

Haatik, ez dut ondo ikusten Batxilergoaren ondoren bi azterketa egitea, hots, errebalida eta selektibitatea. Eta horrekin batera, errebalida horren kontzeptuarekin ere ez nator bat. Izan ere, errebalidak, azterketa bat denez, badu bere alderdi negatiboa: ikasleak ikasgai guztiak azterketa bakar batera-

Alvaro Marchesi

E

Ikastetxeek antolaketarako autonomia, curriculumak garatzeko autonomia, eta ikasleen aniztasunari erantzuteko aukerak, ibilbideak edo proposamenak erabakitzeke autonomia eduki beharko lukete. Horrekin batera, irakasle taldearen egonkortasuna mantentzeko autonomia, eta administrazioari proposamenak egiteko, negoziatzeko eta hitzartzeko autonomia



ko prestazera presionatzen dituela. Hobe izango litzateke ikasgaien arteko oreka bilatzea, ez baita egokia bi ikas-turtetako edo gehiagotako ikasgai guz-tiak azterketa bakar batean neurtzea.

Gainera, oraindik ez dakigu erreba-lida zein mailetan jarri nahi duten. Eta noski, DBHren amaieran jarriko balute, abantaila baino desabantaila gehiago ekarriko litzuzte. Besteak beste, irakas-kuntza eredia bera aldatuko luke.

**Gutxieneko edukiei buruzko neu-
rria ia oharkabean pasa da. Zer diozu
horri buruz?**

Gutxieneko edukiak oso klasikoak dira, eta ikasleen maila bajua edukiak gehituz konpontzen du legeak. 50eko eta 60ko hamarkadetan bezala, ikasle-ak dena buruz ikasteen oinarritutako eredia da hori. Eta momentu honetan informazioa pilatzea ez da garrantzi-tsuena, baizik eta informazioa aukera-tzea, bizitzan moldatzen ikastea, ikas-ten dena eskolaz kanpoko egoerare-kin lotzea, analisirako eta taldean lan egiteko gaitasuna izatea, inizatibak hartzen jakitea eta sortzailea izatea. Ez da garrantzitsua ehunka eta milaka gai jakitea.

Eduki horrek transmititzen duen eredia oso negatiboa da. 10 gairekin ikasleen %25ak ez badu ongi bukatzen, 20 gairekin gehiagok edukiko dute ara-

zo hori. Hezkuntza ulertzeko modua negatiboa da.

**Egungo hezkuntza sistema hobe-
tzeko zein neurri proposatzen dituzu
zuk?**

DBH hobetzeko modurik onena Lehen Hezkuntza hobetzea da, berau baita DBHren klabea eta horegiten den esfortzu orok DBHren funtzionamen-dua bermatzen du.

**Zer esan nahi du Lehen Hezkuntza
hobetzeak?**

Lehenengo gauza zailtasunak dituz-tenikasleei aparte kasu egiteko nahikoa irakasle egotea esan nahi du. Hau da, ikasle horiei denbora gehiago eskain-itzea besteekiko aldeak gutxitzeko.

Bigarrenik zentroei autonomia gehiago ematea eta udaletxeei zeregin gehiago ematea eskolen kudeaketan, antolaketan eta zainketan. Eta hiruga-rrerik, administrazioaren lan egiteko modu aldatzea.

**Zer nolako autonomia beharko lu-
kete ikastetxeek zure ustez?**

Antolaketarako autonomia, curri-culumak garatzeko autonomia, eta ikas-leen aniztasunari erantzuteko aukerak, ibilbideak edo proposamenak erabaki-tzeko autonomia eduki beharko luke-te. Horrekin batera, irakasle taldearen

egonkortasuna mantentzeko autonomia, eta administrazioari proposamenak egiteko, negoziatzeko eta hitzartzeko autonomia. Kasu horretan administrazioaren barruan udaletxeek protagonismo gehiago hartu beharko lukete, zentroetatik hurbilen daudenak baitira.

Zer eskatzen dio horrek ordaintan ikastetxeari?

Bi gauza, nire ustez. Bata eskola kontseiluen aldaketa. Oso mugatuak dira eta gizartearen parte-hartzea gehiago bultzatu behar da, nahiz eta irakasleei ez gustatu. Gizartea diodanean ez naiz gurasoez soilik ari, baita gainontzeko eragileei buruz ere. Gizartea hezkuntzan konprometi dadin lortu behar da, ingurunean paper garrantzitsuagoa jokatu behar du, eta horretarako kudeaketan parte hartu, zuzendaritzan erantzukizunak hartu eta abar egin behar du.

Bigarren kontrapartida da autonomia ebaluatu egin behar dela. Gizarteak eta administrazioek eskolen funtzionamendua nolabait kontrolatu egin behar dute.

Administrazioen lan egiteko modua aldatu egin beharko litzatekeela aipatu duzu. Zer esan nahi duzu horrekin?

Administrazioak eskolarekin dituen harremanak ulertzeko modua aldatu behar du. Administrazioa itzuliko banintz, ez nituzke arau orokorrak egingo. Kolektibo bakoitzari dagozkion irtenbideak bilatuko nizkioke. Bakoitzak bere nahiak eta erantzunak ditu, beraz, eskola bakoitzarekin proiektu zehatzak negoziatu eta adostuko nituzke. Horrek eskatzen du eskolak autonomia, proiektu bat eta egonkortasuna edukitzea, eta administrazioa eskola guztietara banan-banan hurbiltzea.

Irakasleei dagokienez, zein aldaketa egingo zenituzke?

Nagusiki bi: irakasleen garapen profesionala bultzatu eta irakasle dezentren irakasteko modua aldatu.

Lehenagoi dagokionez, mekanismoak adostu eta hitzartuko nituzke irakasleen lana bultzatzeko, beraien kezak eta bideak aintzat hartzeko eta esperientzia duten profesionalak laguntza emateko, beste irakasleak prestatzeko eta abar "erabiltzeko".

Sumatzen dudan gabezia bat zera da: behin irakasleak irakaskuntza publikora sartzen direnean, inor ez dela beraietaz ardurutzen. Oposaketak egin, eskolara joan, ezartzen zaien lana hartu eta kito, hor bukatzen da. Ez da modurik egokiena profesional berriak baloratzen duten lanbide batera sartzeko. Irakasleak beste modu batera aukeratu beharko lirateke, baina horrez gain, berri horiei erakusteko gogoa eta gaitasuna duten pertsonak behar dira.

Bigarrenik irakasle dezentren irakasteko modua aldatzea aipatu dut. Izan ere, beste modu batera irakatsi behar da, irakaskuntza errealitatearekin lotuz, ikasleak bi mundu zeharo desberdinekin topa ez daitezen. Ikasitakoari erabilgarritasuna bilatu behar zaio eta ikasleek paper aktiboagoa eta laguntzaileagoa eduki behar dute. Ikasketa estrategiek lehentasuna eduki behar dute mugarik gabeko edukien metaketa edo ikaskuntzaren aurrean.


Aldaketa horiek ez dira arauen edo legeen bidez egiten. Aitzitik, garapen profesionalak, prestakuntzak, estimuluek eta baldintza hobeeak dakarte aldaketa.

Azkenik, zein mezu bidaliko zenioke hezkuntza komunitate osoari?

Garrantzitsuenak ez direla aipatu ditudan neurri zehatz horiek, baizik eta hezkuntza ulertzeko oinarritzko ardatza, hezkuntzari ematen zaion zentzua eta irakasleen lana.

Hezkuntza proposamen global bezala ulertu behar dugu, ez bere testuinguru sozialetik at dagoen zerbait bezala. Hezteak merezi duela pentsatu behar dugu. Hezkuntzak ez du izan behar ezagutzak ikastea soilik; hiritarrak hezi behar ditu pertsona kontzienteak, erantzuleak, berritzaileak eta sortzaileak izan daitezen. Mezu hori nagusitzen doan heinean eta posible egiteko moduak bilatzen diren heinean, neurri horiek beteko dira.

Horrek gero eta esfortzu handiagoa eskatzen du, irakasteko modu berriei aurre egitea. Irakasleek sumatu behar dute hezkuntza beste modu batera ulertze horrek beren ahalegina bultzatzen duela.




Bideoak eskaintzen dizki- gun aukerak

Normalean eskolan bideoa gutxitan erabiltzen da, baina bideoaren bidez jarduera asko egin daitezke, honako abantaila hauek baitauzka bideoak:

- Bideo zinta edonoz ikus dezakegu.
- Nahi dugunean gelditu dezakegu; zerbait azaltzeko, adibidez.
- Atzerantz jo dezakegu zerbait berrikusi nahi izanez gero.
- Nahi ez ditugun zatiak aurreratu ditzakegu.
- Hainbat bideoekin beste bideo berri bat sor dezakegu.

Baina, zertarako balia ditzakegu abantaila horiek?

- Irakaslearen azalpena osatzeko.
- Gai berri bat ikasteko.
- Emandako gai bat errepassatzeko.
- Hainbat arlotako ikasketak erlazionatzeko.
- Jarduerak sortzeko.
- Banaka lan egiteko.
- Etxerako lanak betetzeko...



Iker LASKIBAR

Hezkuntzari aplikaturiko Teknologia Berrietan trebatua

Film baten zatitxoetatik jarduera ugari antola daitezke. Adibidez, Harrison Forden film batean aktoreak urtegi batetik salto egiten duela ikusten badugu, urtegiaren altuera zein den azter dezakegu. Behin hori jakinda, uretara iritsi bitartean aktorearen abiadura zein izango den kalkulatu dezake. Eta uraren marruskadura baldin badakigu, zein sakonerara iritsiko den ere bai.

Kasinoetako film bat ikusten badugu, ostera, erruletara jokatu baino lehen bideoa gelditu dezakegu eta gure ikasleei hainbat galdera egin diezazkiekegu: zein den zenbaki irabazlea asmatzeko probabilitatea, zein den kolorea asmatzeko probabilitatea, zein den kolorea eta zenbakia, biak asmatzeko probabilitatea, behin aktoreak asmatu ondoren zein den be-

rriz asmatzeko duen probabilitatea eta abar.

Fisikako eta matematikako adibideak aipatu ditut, baina beste hainbat arlotarako ere baliagarria izan daiteke: sekuentzia bat ikusi eta gero laburpenak idazteko, deskribapenak egiteko, landareen eta zuhaitzen ezaugarriak ikusteko, animalien bizitzari buruz gehiago jakiteko, unibertsoaren irudiak ikusteko, herrialdeetako historia eta artea hobeto ulertzeko eta abar. Horretarako, ez ditugu erabili behar bereziki hezkuntzarako prestatutako bideoak, ia edozein bideoetatik lor baitaiteke zerbait interesgarria. Zenbat eta irudimen handiagoa, orduan eta ondorio hobek. Aurreko artikuluan esan nuen bezala, telebista txarra eduki arren, oso lan onak egin daitezke telebistarekin. Eta bideoekin ere gauza bera gertatzen da.

Gainera, kontuan izan behar da ikasleen motibazioa handitu egingo dela bideoa erabiliz gero, eta denok dakigu ikasleen motibazioa oso garrantzitsua dela irakasgaiak lantzerakoan.

Nire ustez, ez litzateke ideia txarra izango liburutegian bideoak sartzea edo bideoteka bat sortzea, gure lanerako lagungarri badira ez baitu zentzurik bideoak ez edukitzeak. Gainera, kontuan izan behar dugu gaur egun bideoak nahiko merkeak direla.

Dena den, bideoak erosi baino lehen, beste aukera batzuk baditugu. Zergatik ez ditugu gure bideoak egiten? Zergatik ez dituzte ikasleek beren bideoak egiten? Kamara digitalarekin eta bideo tresna batekin nahiko erraza da. Jakina da, gainera, ikasleek guk baino askoz hobeto erabiltzen dituztela tresna horiek. Edukiak beraiek antolatzen badituzte, irakurtze hutsarekin baino gehiago ikasiko dute. Kontuan izan behar dugu bideoaren bidez edozein gai azaldu nahi badute, lehendabizi ondo ulertu behar dutela. Eta azkenik, bideoa bukatu ondoren gelan aurkez diezaieke ikaskideei. Azken finean, beren ikaskuntza prozesuaren protagonistak sentitzen badira, ahalegin handiagoak egingo dituzte beraien (eta gure) helburuak betetzeko.

Bideoa eta aniztasunaren trataera

Gaur egun garrantzi handia ematen zaio aniztasunaren gaiari. Kontuan izan behar dugu daukagun ikasle bakoitza desberdina dela. Horregatik saiatu behar dugu ikasle bakoitzaren beharrak betetzen. Xede hori lortzeko, hainbat tresna erabil dezakegu, baina teknologia berriek asko lagun diezagukete. Artikulu honetan, ordea, bideoari dagozkion aukerei buruz soilik hitz egingo dut.

Bideoa banaka lan egiteko nahiz gaiak errepasatzeko ona izan daitekeela esan dut lehen. Gela berean hainbat maila aurki ditzakegu. Pentsa, adibidez, gela bakoitzean bideo bat, telebista bat eta bizpahiru entzungailu dauzkagula. Zergatik ez diegu ikasle nabarmenenei eta zailtasun handienak dituztenei baliabide horiek erabiltzen uzten, besteei eskola ematen diegun bitartean? Batzuetan ikasle nabarmenenak aspertu egiten dira eta, beste batzuetan, zailtasunak daukatenek ez dute ulertzen irakaslea azaltzen ari dena. Horregatik, gaiari buruzko bideo bat ikus dezakete gehiago jakiteko edo azaldutakoa hobeto ulertzeko, besteek irakasleari entzu-



ten dioten bitartean. Agian lehenengo saioetan arraroa irudiko zaie, baina denborak aurrera egin ahala, gelaren barruan bideoa erabiltzera ohituko dira.

Askok esango dute erabilera horrek gazteek *kutxa mozoloa* gehiago ikusteko besterik ez duela balio izango; benetako hezkuntza liburuen bidez besterik ez dela lortzen; eta liburuak bideoak baino hobekak direla. Mota horretako arrazoiak historian zehar behin baino gehiagotan entzun izan dira heziketan zerbait berria sartu nahi izan denean: Sokrates idazkeraren aurka zegoen, Erdi Aroko Unibertsitatea liburuen aurka eta Beethoven metronomoaren aurka. Historiak arrazoia kendu die hirurei; bideoaren erabileraren kasuan, gurasoei ere arrazoia kenduko ote die? Gainera, ezin dugu ahaztu gaur egungo ikasleek ikus erreferentzia gehiago dituztela erreferentzia idatziak baino.

Beste askok pentsatuko dute telebista eta bideoa gelan sartzea garestia izango dela. Halere, gurasoen laguntzarekin baliabide horiek arin lor daitezke. Guraso bakoitzak seme edo alaba bakoitzeko urtero 15 euro ordainduko balu, lehenengo urtean gela guztietan bideo bat, telebista bat eta hiru entzungailu lortuko lirateke. Eta

bigarren urtean gai interesgarriei buruzko bideoak erosi ahal izango lirateke. Beharbada, batzuentzat amets hutsa da proposatu dudana, baina nire ustez, amets ez gaiten da aurrera. •

**Ez litzateke
ideia txarra
izango liburu-
tegian bideoak
sartzea edo
bideoteka bat
sortzea, ez
baitu zentzurik
bideoak ez
edukitzeak
gure lanerako
lagungarri
badira**



Sartu beldurrik gabe

urte osoan ateak zabalik dituen San Jose ikastetxean

Sartu beldurrik gabe horixe diote Donostiako Prim kalean dagoen San Jose ikastetxean. Urte osoan ateak zabalik dituen ikastetxea dela esan nahi du horrek, hots, azarcan, urtarrilean edota apirilean datorren ikasleari ez zaio la oztoporik jartzen gelara sartu eta beste ikaskideekin batera jarduteko. Hori da Karitateko Alaben konpainiaren eskuetan dagoen ikastetxe honen ezaugarrietako bat; eta beste bat, ikasleen gehiengoa etorkinak izatea da.

Azken urteotan, duela 100 urte inguru sortu zen ikastetxe honen ikasle kopurua asko jaitsi bada ere, aurten 130 ikasle ditu, eta ia gehienak etorkinak dira: kolonbiarrak, perutarak, errusiarak, bulgariarrak, txinatarrak, portugesak... 22 nazio desberdinetako haurrak daude. Beste edozein eskolatako



Rosario Irigoien zuzendaria

kopurua baino askoz handiagoa da, eta horren arrazoietakoa bat urte osoan ateak zabalik edukitzea da. Rosario Irigoien zuzendariak dioenez “*ikasle bat edo gehiago ikasturtea hasi ondoren hartzeak dinamika eta programazioa aldarazten ditu, eta nola ez, lana ugaritzen du. Guk, ordea, hautu hori egin dugu. Gabonetako oporren ondoren 20 ikasle gehiago etorri ziren, eta egun hauetan beste hiru*”.

Ikasleak eskolako dinamikan ondo integratzen direla dio Irigoienek, “*giro gizatiarra topatzen baitute. Errumaniarrek edo txinatarrak oso irakasle gogorak eta zorrotzak zituztela esan ohi dute eta irakasle-ikasle arteko harremana ere oso gogorra zela. Diziplina oso zorrotzean ohituta etortzen di-*

ra, eta hemen berehala konturatzen dira lagundu egingo zaiela”. Jasotako diziplina zorrotzaren ondorioz, jolasten ez dakiten haurrak direla dio zuzendari honek: “*Ez dira inoiz jolastu, ez dakite zer den jolastea, eta hemen ikasten dute*”.

Ez dute, ordea, jolasten soilik ikasten, noski. Lehen Hezkuntzako ziklo osoa bukatu arte ikasketak bertan egiteko aukera dute. Eskolaurreko mailatan euskaraz aritzen dira, baina Lehen Hezkuntzan B ereduan jarraitzen dute. Irigoien zuzendariak aitortu duenez, “*B eredia da, baina galdera ikurra duen B eredia. Izan ere, eskolaurretik datozenek ez dute inolako zailtasunik eredu horretan jarraitzeko. Baina geroago sartzen direnek bai. Beren he-*



rrialdetektorri berriek ez dakite euskaraz, eta ez dira gai Bereduan ikasteko. Batzuek gaztelaniarik ere ez dakite". Beraz, horiek denak nahasten dira gelan: alde batetik, eskolaurrean eskola horretan bertan ibili direnak, euskaraz badakitenak eta Beredua jarraitzen dutenak; eta bestetik, eskolara geroago etorri direnak eta euskaraz ez dakitenak.

Gaztelania jakin gabe iristen diren ikasleei hizkuntza hori irakasten zaie. *"Aparte hartzen dira eta gaztelania irakasten zaie. Ez dugu itzultzaileirik gure artean, eta gu gerok moldatzen eta arduratzen gara. Zenbait kasutan, udan osoan goizero aritzen gara irakasten. Momentu honetan 6. mailan dagoen errumaniar bat 3. mailan sartuzen, eta orain oso ondo hitzegiten du gaztelaniaz, euskaraz badaki, eta noski, errumaniera mantendu du"*.

Ikasleen arteko harremana oso ona dela dio Irigoienek, eta herri desberdinen arteko lotura estua dela. *"Neska-mutilak elkartasunean hezten dira eta elkar maite dute, ez dago bazterketarik eta gatazkarik beraien artean"*.

Hainbat herrialdetako ikasleak elkartzen direla kontuan hartuta, bakoitzaren jatorria eta kultura zaintzeaz arduratzen dira. Garrantzitsutzat jotzen dute kultura guztiak nahastea eta denek denak ezagutzea eta bizitzea. Horrela, Gabonetan denek abesten dituzte Euskal Herriko gabon abestiak, guztiek dantzatzen dituzte Kolonbiako dantzak eta abar.

Ikasleen arteko harremana lantzeaz gain, familiarekin eta gizartearekin ere lotura mantentzen dute San Jose ikastetxean. Ez da beste ikastetxeetan sortzen den moduko harremana. Nola-bait esateko, familien eta gizartearen arteko zubi lana egiten du ikastetxeak hainbat kasutan. Izan ere, guraso asko lan bila aritzen dira eta ikastetxeak horretan laguntzen die. Era berean, Donostiako jendeak eta taldeek badakite lan egin nahi duen jendea topatzeko ikastetxe horretara jo dezaketela.



Doakotasuna

Ikastetxe honetara joaten diren haurrek ez dute ezer ordaintzen, ez jangelarik, ez testu libururik, ez ezer. Eskola-asegurua baino ez dute pagatzen, eta hori ere ez denek, ikastetxeak % 60-70ena ordaintzen baitu. Gauzak horrela, haur guztientzako bekak eskatzen dituzte eta ia denentzat ematen diete. Laguntza horrekin testu liburuak eta jangelako gastuen zati bat ordaintzen dute. *"Horrez gain, Elikagaien Bankuak eta Gurutze Gorriak janaria ematen digute, eta hori ordaindu beharrik ez dugu izaten"*, erantsi du Irigoienek. Berak emandako datuen arabera, 130 ikasleatik seik baino ez dute ordaintzen jangela, eta horiek ere ez beti.

Etorkinentzako irtenbide egokiaren bila

San Jose ikastetxean pilatzen diren etorkinak asko dira, eta badirudi beraietzako eskola dela, ez bertakoenetzako. Horrek ghetto bilakatzeko arriskua sor dezake, baina ikastetxeko zuzendariak ez du horrela ikusten. *"Badira hori esan dutenak, baina nik ez dut uste hala denik. Nahi duen ororentzat irekita dago, baita donostiarrentzat ere. Eta izatez, ikasle ohien seme-alabak badaude hemen. Dena den, egia da beste eskola bat ordain dezakeenak ez duela hona ekartzen bere semea edo alaba. Baina esan dudan bezala, ikastetxea denei irekita dago"*.

Etorkinek eskola honetan sartzeko beste batzuetan baino erraztasun handiagoak topatzen dituzte: ez dute ezer ordaindu behar, ateak zabalik dituzte



ikasturte osoan, euskara mailarik ez dute eskatzen...

Beste eskoletara joateari ez dio gaizki irizten Irigoienek, baina haien funtzionamendua oztopatuko lukeela ikusten du. *"Ikuskariak esan izan digu beste eskolei arazo bat kentzen diegula, ikasle horiek aurrez ezarrita daukaten funtzionamendua oztopatuko bailukete. Azken finean, lana eta kezkak areagotzen ditu, ez dago dudarik"*. Hala ere, neska-mutil jatorrak, ondo hezitakoak eta atseginak direla dio, eta arazorik ez dutela sortzen. ●



Proiektu eta plangintza berriak aurkeztu dira euskararen erabilera ardatz izan duten jardunaldi pedagogikoetan



Ikastolen Elkartearen IX. Jardunaldi Pedagogikoen aurkezpen ekitaldia otsailaren 19an.

Ikastolen Elkarteak antolatutako IX. Jardunaldi Pedagogikoak otsailaren 19tik 22ra bitartean ospatu ziren Donostiako Miramon Teknologia Elkartegian. Aurtengo jardunaldien gaia *Euskararen erabilera* izan da, gaur egun kezka eta interesa sortzen dituen gaia, ez bairik gabe. Horren adierazle da matrikulatu kopurua, 262 lagun bertaratu baitira.

Lau egunetan zehar bertan bildutako hizlariak eta adituek gaia hainbat ikuspuntutatik aztertu dute, euskararen normalkuntza prozesuan egin diren urratsen berri emanez. Orain arte egindako ahaleginari buruzko haus-

narketa egiteko baliagarriak izan dira jardunaldiak, eta horrekin batera, etorkizunera begira jartzeko ere bai. Zentzu horretan, hainbat plangintza eta asmo aurkeztu dira, bai irakaskuntza mundura zuzendutakoak eta bai, oro har, gizartera bideratutakoak.

Jardunaldietan entzun eta ezagututakoaren haritik ondorio orokor bat atera daiteke: orain dela 30 urte baino egoera hobean aurkitzen garela, hots, euskararen irakaskuntzan, euskarazko irakaskuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzan aurrerapausoak eman direla, baina bereziki irakaskuntza idatziari eman zaio garrantzia, ahozko hizkuntza bigarren mailan gelditua den bitartean.

Horren ondorioak nabaritzen dira orain; ikasleek eta profesionalek izugarrizko gaitasuna dute euskaraz idazteko, baina gabezia nabarmena



Ikastolen Hizkuntz Proiektu berria aurkeztu dute.

dute ahozko azalpenak emateko eta egunerokotasunean euskaraz zuzen, bizkor eta freskotasunez komunikatzeko.

Ahazkotasuna lantzeko kezkak eta premiak bide berri bat irekiarazi du orain. Euskararen erabilera bultzatzeko urratsak emateko gertu azaldu dira denak jardunaldietan, gizarte aniztasuna eta hizkuntz aniztasuna aintzat harturik.

Hiztunen kopurua igo den arren, zenbait lekutan erabilera esparruak ez dira hain ugariak. Hori dela eta, helburua da euskara ahalik eta esparru

gehienetara iristea eta esparru horietan erabilera areagotzea, azken finean euskara eta euskal kultura gero eta txertatuago egon daitezen.

Ikastolen Hizkuntz Proiektua

Ikastolen Hizkuntz Proiektua izenburupeko hitzaldian Itziar Elorza Ikastolen Elkarteko hizkuntza adituak eta Erramun Osa Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko Hizkuntza Proiektuaren arduradunak ikastolek hizkuntzei eman dieten eta emango dieten trataera izan dute hizpide.

Ikastolen sorreraren zergati nagusietakoak euskararen berreskuratzeko eta garapen prozesuari erantzutea izanik, ikastolen ibilbidean horrek garrantzi handia izan du. Euskara irakastea, euskaraz ezagutza eraikitzea eta euskaldun sena hezteko izan dira, besteak beste, ardura nagusiak. Horrekin batera, irakas-irakaskuntza prozesuan bideratutako euskara gizarteko beste esparru orotara hedatzeko helburua ere badu. Horren haritik sortu eta garatu dira Euskaraz Bizi eta beste zenbait proiektu.

Denbora aurrera doan heinean, ordea, gizartea aldatuz doa. Gaur egun, Europako testuinguruan nagusi diren aldaketa politikoen eta administratiboen beharrezko sozial berriak eragin dituzte. Eleaniztasunean hezitako europar belaunaldi berria sortu da. Fenomeno horri erantzuteko ikastoletan pedagogia egitasmoa berri eta eleaniztasun proiektu berritzailea jarri zen abian.

Horrek guztiak hainbat kezka eta hausnarketa eragin ditu, eta erantzun egokia emateko *Ikastolen Hizkuntza Proiektua Definitzen* egitasmoa jarri berri dute martxan. Proiektu honek bi alderdi ditu: batetik, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko mailakoa; eta bestetik, ikastola bakoitzak bere egoerara egokitutako hizkuntza eta hezkuntza proiektua izango du.

Edonola ere, proiektu bien ardatza euskal curriculumak izango da.



Abiapuntua hori izanik, ikastolako hizkuntza guztiak bilduko dituen Hizkuntzen Curriculum Integratua diseinatuko da, eta horrek bildu eta uztartuko ditu ukipen kulturak, curriculum ofizialak, Europako kultura, kultura unibertsala eta etorkinen ukipen kulturak.

Proiektu hau aurrera eramateko hezkuntza komunitatea osatzen duten kide guztien lankidetzaren ezinbestekoa dela azpimarratu dute.

Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hurbilpen teorikoak

Mikel Zalvide Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara zerbitzuruak eskaini hitzaldian ahuldutako hizkuntzen indarberritzea izan du hizpide. Lehendabizi horixe definitu du, hots, hiztun kopuruz eta erabilera kopuruz gero eta estuago dabilen hizkuntzari hiztun gehiago erantsi eta esparru berriak zabaltzea dela ahuldutako hizkuntza indarberritzea.

Horretan hasi aurretik, hizkuntzaren gaitza diagnostikatu behar dela adierazi du, eta ondoren, sendabideak bilatu. XX. mendean ezagunenak



John Clegg Londreseko hezkuntza aholkularia.

bihurtu diren sendabideak aipatu eta azaldu ditu: hizkuntza bera garai berrietarako egokitzea; galbidean doan hizkuntza jende gehiagori erakustea; boterea eta aginpidea eskuratuz ordura arteko hizkuntza ahula beharrezkoa bihurtzea; hizkuntza ahulari belaunez belauneko iraupen bidea bermatzea eta esparru berriak zabaltzea.

Hizkuntzen proiektu integratua

Bartzelonako Vila Olimpica eskolatik etorritako Rosa Maria Ramirez zuzendariak eta Maria Teresa Serra ikasketa buruak euren ikastetxeko *Hizkuntzen Proiektu Integratua* aurkeztu dute.

1996/97an sortu zen eskola hone-



Bartzelonako Vila Olimpica ikastetxeok *Hizkuntzen Proiektu Integratua* aurkeztu zuten.


tan hizkuntzei trataera integratua ematen diete eta hizkuntza zeharkako ardatz gisa hartuz, ikaskuntzako tresna nagusizat hartzen da curriculumeko arlo guztietan. Egitasmoak hiru hizkuntza erabiltzeak dakarren aberastasuna kontuan hartzen du, eta hirurak bihurtzen ditu, maila desberdinetan, erabilerako hizkuntza eta oinarri. Hau da, hizkuntza horien bidez lantzen dira jakintza eta informazio mota desberdinak, bai hizkuntzalari-tzakoak eta bai curriculumeko beste arloetakoak. Hori bai, katalana da eskolako lehen hizkuntza, hezkuntzako kide guztiek komunikatzeko erabiltzen dutena. 3 urterekin katalanez soilik aritzen dira eta 4 urterekin hasten dira gaztelania eta ingelesarekin. Mailaz maila egiten dutena azaldu dute, kriterio metodologikoak agertuz. Horrelako proiektu bat aurrera ateratzeko irakasle guztien inplikazioak eta koordinazioak duten garrantzia azpimarratu dute.

Hizkuntzaren zeharkakotasuna. Britania Handiko eredu

John Clegg jaunak, Londresen hizkuntza aholkaria denak, Britania Handiko Bigarren Hezkuntzako es-

koletan aurrera eramaten ari diren *Key Stage 3 Literacy Policy* proiektua aurkeztu du.

Proiektu horren muinak zera dio: hizkuntza funtsekoa bada, irakasle guztiek hizkuntzaren eta kontzeptuen garapena nolakoa den ezagutu beharko luketela, hau da, ez Hizkuntza irakasgaia irakasten duten irakasleek soilik, baizik eta irakasle guztiek. Irakasleek hizkuntza ondo ezagutu ez ezik, jakin ere egin behar dute arlo bati buruzko ezagutzak jaso ahal izateko, hizkuntzaren osagaiak tresna kognitiboak eta linguistikoak direla. Beste modu batera esanda, arloa



Juanjo Gomez IX. Jardunaldi Pedagogikoen koordinatzailea.

menderatzeko ikasleek hainbat hizkuntza eta ikasketa trebetasun izan behar dituzte, baina irakasleak ez ditu horiek irakasten. Ikasleek trebetasun horiek aurretik dituztela uste da.

Literacy egitasmoarekin irakurmena, idazmena, entzumena eta ahozkotasuna lantzen dituzte Britania Handian. John Cleggen esanetan, ikasleek ez dute hitz egiteko aukera gehiegirik izaten eta inork ez die idazten irakasten. Oro har, ez dira hizkuntza erabiltzera nahikoa bultzatzen. Gabezia horri aurre egiteko planteatu zuten aipatu proiektua. Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan lehenago ezarri bazen ere, ikasturte honetan jarri da abian Bigarren Hezkuntzako eskoletan. ●



Lorea Bilbao Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetzako Euskara sustatzeko zuzendaria eta Johan Haggman Europako bulegoko hizkuntza gutxiuetarako proiektuen arduraduna.

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak martxoa

UNEDen 25. urteurrenako ekitaldiak

Bergarako UNED zentroak orain dela 25 urte zabaldu zituen ateak, eta urteurren horren itzalean **Kultura Soziologiaren Mintegi Iraunkorra** sortu da.

Mintegiaren helburua kulturaren esparruarekin loturaren bat duten ikasle, irakasle, profesional edota erakundeen artean formaziorako eta elkartruckerako sare iraunkor bat sortzea da. Sare horren baitan ekintza teoriko nahiz praktikoak egingo dira. Horietako bat kulturaren hainbat arlo eta aurpegi aztertzea eta lantzea helburu duen hitzaldi zikloa da. Urtarrilean hasi zen eta maiatzera arte luzatuko da, eta ondorengo hitzaldiak izango dira hurrengo hilabeteetakoak:

Martxoaren 20an, asteazkena, "Kultura eta bere erresistentzia", Joxe Anjel Artetxe arte kritikaria eta Lapiz aldizkariko kolaboratzaileak eskainia.

Apirilaren 24an, asteazkena, "Turista kulturala", Alberto Santana historialaria eta Amaiur bidai agentziako arduradunaren eskutik.

Maiatzaren 22an, asteazkena, "Artea, merkatua eta kultura", Fernando Illana Gasteizko Traycto galeriako zuzendari kideak emana.

Hitzaldi guztiak **Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean** izango dira **19:30ean**.

Informazio gehiagorako: Bergarako UNED. Tel.: 943 76 90 33

ELA irakaskuntzaren 5. Biltzarra



Juanjo Larrazo Nafarroako arduraduna eta Amaia Aierbe idazkari nagusia.

Martxoaren 1ean 250 lagun bildu ziren Iruñean ELA Irakaskuntzak ospatu zuen 5. Biltzarrean. **Irakaskuntzan langileok geure hitza** lelopean ponentzia orokorra aurkeztu, eztabaidatu eta onartu zen. Era berean, hurrengo lau urtetarako idazkaritza eta batzorde federal berria hautatu ziren.

Eztabaidagai izan zen ponentzian gaur egungo testuinguru *gogorra* azpimarratu zen:

- Politika neoliberalak heziketaren zerbitzuak, zerbitzu publiko bezala ez, baizik eta merkantzia eta komertzializatu ahal den gaitzat hartzen ditu.

- Heziketa arloan autogobernuari etengabe egiten zaizkion erasoak, PPK bultzatutako lege sorta inposatuz, erabat zentralistak eta uniformizatzaileak dira, besteak beste, onartu berri den LOUa, Lanbide Heziketaren Legea edota jadanik iragarritako Kalitatearen Legea.

- Azpimarratzekoak dira, baita ere, euskal hezkuntza sistemari, euskara berari eta orokorrean irakaskuntzako langile guztiei egiten zaizkien eraso partidistak.

Egoeraren azteketa hori egin ostean, hemendik aurrerako erronkak zehaztu dituzte:

- Heziketa Sistema osatzen duten langileen eskariei eta euskal gizartearen beharrei erantzun- goren dien berezko heziketa sistemaren garapen osoa.

- Sindikatuaren antolaketa sendotzea, bazkide eta militante kopurua handituz ekimen sindikal aldarrikatzaile baten ereduaren oinarri izango diren parte hartzeko bide berriak eraikiz.

- Aldarrikapenei dagokienez, negoziazio kolektiboaren bidez lortu beharreko hiru aldarrikapen aipatu ziren:

- Erosteko ahalmena berreskuratzea, homologazioa lortzea eta lan-sarrietan diskriminazioa ezabatzea.


- 35 orduko lanaldia orokortzea eta lanaldi lektiboa murriztea.

- Kalitatezko lanpostu duinak sortzea prekarietatea eta azpikontratazioa ezabatuz.




Xabier Exposito ponentziaren aurkezpena egiten.

Argitalpenak



Jara
Jasone Osoro
Zubia

Elkarrizketa bizian oinarritutako liburu hau 12 urtetik aurrerako gazteei zuzendurik dago. Protagonista den Jarak haur izateari utzi eta emakume bihurtzen hasten deneko prozesu horretan jasaten dituen aldaketen berri ematen digu idazleak; besteak beste, gurasoekiko haserreak, lagunekiko konplizitatea, pozak eta tristorak, baina hori bai, maitasuna oinarritzat izanik •



Argazkiei begira
Karlos Santisteban
Ibaizabal

Gailurrean bildumako liburu hau irakurle helduentzat da egokia. Argazki bilduma bat ikusten hasten den Anton protagonistari bere bizitzan zehar igarotako hainbat gertakizun nahiz horien aurrean agerturiko sentimenduak datozkio burura; oroimen onak eta tartean egoera latzak. Hori guztia lehenengo pertsonan kontatzen digu, gertutasuna ematen diolarik •



Printze txikia
Antonie de Saint-Exupéry
Elkarlanean

Liburu honek bakardadea eta adiskidetasunari buruzko hausnarketa pausatu eta poetikoa eskaintzen digu; haztearekin batera, haurtasuna bertan behera ez uztea proposatzen digu, baldin eta haurtasuna galderekin, irudimenarekin eta xalotasunarekin lotzen bada. Horregatik, haurrentzat baino egokiagoa da helduentzat, edota haurrek helduekin batera irakur dezaten •




Gure jakintzaren mugak
Roman Garmendia
Dakit

Zer dakit nik? bildumako liburu honetan aspaldiko gaia lantzen du egileak: ea posible den mundu materialaz zientziarik egitea. Egileak posible dela uste du, baina unibertsal bihurtzea ezinezkoa dela. Joera eszeptiko horretatik saiatzeko da teoria partikularizatzen. Horrela, kultura hori ikertzeko eta gainditzeko oportunitatea irekitzen du, ez baita unibertsala •



Kantuzale
0. zenbakia

Euskal kantu eta musikazale guztien zerbitzura jarri nahi den aldizkari honek musikaren inguruko berriak jaso, asmoak trukatu, iritziak alderatu eta hilerok topaleku izan nahi du. Zenbaki honetan azken bi urteotan komunikabideetan argitaratutako artikulak bildu dira. Bukaeran galdetegi bat erantsi da, iritziak jaso eta proiektuaren nondik norakoak finkatu ahal izateko •



Txirritx
CD-ROM
Ikastolen Elkarte

Haur Hezkuntzako Urtxintxa proiektuaren barne argitaratutako CD-ROM hau 4 urtetik aurrerako haurrei bideratua dago. 12 gai desberdin lantzen ditu, eta gai bakoitzean hainbat jarduera daude aukeran: pantaila animatuak, memori karta jokoa, ipuinak, labirintoa, margo, olerki eta igarkizun txokoa, puzzleak eta abar. Guztiek Txirritx kiltterra izango dute gidari eta laguntzaile •

Berriak

ikastaroak

Informazio gehiagorako:
Karmele Bujan, Irakasle Eskolako 2.02 bulegoan 9:00etatik 13:00etara.
Tel.: 943 01 80 00
Faxa: 943 01 84 57

Berrikuntza irakaskuntzaren antolakuntzan: zehar lerroak

Irakaskuntzaren alorrean gertatzen ari diren berrikuntzak eta zehar lerroak hartzen ari diren garrantzia landuko dira Donostiako Irakasle Eskolan **apirilaren 22 eta 23an** egingo diren jardunaldietan. Pedagogia, Psikologia, Gizarte Hezkuntza eta Magisteritzako ikasleentzat eta eskoletako irakasleentzat zuzendurik daude jardunaldiak. Egitaraua honakoa da:

Apirialk 22

9:00 *Hezkidetzaren hezkuntzan azken hamarkadan.* Emailea Lanbroa taldeko Mari Jose Urruzola.

10:15 *Osasun hezkuntza: irratia, telebista eta interneta. Osasunkumearen garapenerako baliabideak.* Emaileak Ikertze taldeko Zuriñe Adrade eta Blanca Zaragueta.

11:30 *Kontsumoa hezkuntza: jostailuekin nola ikasi?* Emailea: Osasunkume-Edex taldeko Iratxe Apraiz.

16:00-18:30 Tailerrak:

1.- *Osasuna: umeekin osasuna lantzeko talde dinamikak.* Emailea: Osasunkume-Edex taldeko Iratxe Apraiz

2.- *Kontsumoa: Eurogira jokia.* Emailea: Prisma taldeko Arantxa Sánchez.

Apirilak 23

9:00 *Bide hezkuntzaren esperientzia hainbat ikastetxetan.* Emaileak: Donostiako Udaleko Maite Huerga, Alberto Celaya eta Maite Artola.

10:15 *Bake hezkuntza. Ikastolen Elkarteko elkarbizitzaren ikuspegia: teoria eta praktikaren arteko uztarketa.* Emailea Ikastolen Elkarteko Iñaki Beola.

11:30 *Aisialdirako hezkuntza: Zergatik? Zertarako?* Emailea: Gipuzkoako Urtxinta Aisialdi Eskolako Atzio Orea.

12:45 *Gurasoak eta zehar lerroak: gurasoen partaidetza.* Emailea: Baika Guraso Elkarteko Imanol Zubizarreta.

16-18:30 Tailerrak:

1.- *Bakea: gatazka arakatzeko.* Emailea: Ikastolen Elkarteko Juanjo Gomez.

2.- *Aisialdia txokoetan: haurrak eta euskara, gazteak eta osasuna, haurrak eta historia, haurrak eta ingurunea.* Emaileak: Gipuzkoako Urtxintxa Aisialdi Eskolako Amagoia Etxeberria, Javier Jimenez, Aser Lertxundi eta Ixone Lahidaga.

Sentsibilizazio ikastaroak Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolan

Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak heziketa praktika psikomotrizetan formatzeko bi urteko ikastaroa (2003ko urtarrila-2004ko abendua) baino lehen haurren osasun eta heziketa lanean ari direnei zuzendutako "sentsibilizazio" hiru ikastaro antolatu ditu honako helburuekin:

- Berraurkiketa eta ongiegote egoera sentsiomotrizetaren parte-hartzea taldeka eta mugimenduan oinarriturik.

- Lasaidura bizkorgarriak eta luza-penak bizi eta barnatzea.

- Bestearekin elkarturik egokitze bizkorgarria bilatzea denbora eta espazioan kokaturik.

- Norbere gorputzaren irudira iristea.

- Plano horizontal eta bertikalen kokagunearen aldarriaz jabetzea.

Ikastaroen zuzendariak Miguel Angel Dominguez Sevillano, Jon Perez de Arriluzea eta Alvaro Beñaran izango dira. Bi urteko ikastaroko irakasleak eta B. Acouturier Hezitzaile Taldeko kideak dira hirurak.

Lehen ikastaroa martxoaren 1, 2 eta 3an burutu da Bilboko Pio Baroja ikastetxean, eta hurrengo egunak eta tokiak hauek dira:

- **Maiatzaren 24, 25 eta 26an Trintxerpeko (Pasaia) Karmengo Ama ikastetxean**

- **Irailaren 20, 21 eta 22an Gasteiz-**

ko Luis Elejalde ikastetxean.

Ordutegia guztietan berdina izango da: ostiraletan 18:00-22:00, larunbatetan 9:00-13:00 eta 14:00-19:30 eta igandetan 9:00-15:30.

Ikasle kopurua mugatua izango da eta matrikula epea ikastaro bakoitza hasi baino 8 egun lehenago bukatuko da.

Informazio gehiagorako:

UNED, Psikomotrizitate Eskola
69 P. K.

20570 Bergara

Tel.: 943 76 90 33

Faxa: 943 76 27 21

E-posta: info@bergara.uned.es

Bulego orduak: asteartetik ostiralera
10:30-13:00 eta 17:00-20:00.



Ni begiek salatzen naute, zu begiradak

Seaskako Integrazio Batzordeak Ni begiek salatzen naute, zu begiradak izeneko kanpaina jarri du abian. Ezberdinak diren haurrak eskolan integrazteko ekimen horren barruan kontzertu bat antolatu dute apirilaren 6rako, baina horrekin batera bada berrikuntza bat: **Partaide O2 kanpaina**. Egitasmo berri horrekin elkartasun sare zabal eta iraunkor bat sortu nahi dute, konpromisoa egun batera mugatu gabe. Hau da, haur batzuen eskolatzeari kontzertu baten arrakastara mugatua gera ez dadin, ezberdintasuna integrazten duen eskola baten *partaide* izateariko gonbidatzen dute.

Partaide bihurtzeko hainbat modu daude: urtean behin diru kopuru bat bidaliz urteroko kanpainaren kariatara; elkarrekin kasuan zerbait antolatuz Integrazio

Batzordearen alde (bertso afaria, mus txapelketa...); edota urtean zehar norik bere inguruan gizartearen begirada aldatzen laguntzea.

Iazko martxoan egindako kanpainarekin ahalmen urriko haurrak dituzten gurasoek beraien haurrak ikastolan sartzeko aukera badutela jakinarazi nahi izan zuten, eta baliabide ekonomikoak lortzeko laguntza eskatu zuten. Ekimen harekin ikasturte honetarako dirua lortu zen, eta familiek ez zuten diru gehiago jarri beharrik izan. Aurtengo kanpainaren helburua 2002-03 ikasturterako finantziaketa lortzea da, familiei lasaitasuna eskainiz.

Beraz, pentsatzen baduzu urritasuna ez dela ezintasuna; ahalmen urriko haurrak ezberdinak direla bai, baina ez ezin-

duak; besteen eskubide berak dituztela; eskola arruntean eta euskaraz eskolatuak izateko eskubidea dutela; integraztea ez dela berdintzea, baizik ea ezberdintasunaren ezagutzea; bitarteko gehiagorik aitortu behar zaiela ahalmen gutxiago dutenei; eta ezberdin direnen eskubide eta duintasunaren defentsa denon zeregin delako, orduan ezberdintasuna integrazten duen eskola baten *partaide* izan zaitezke.

Horretarako, Seasko Integrazio Batzordera jo besterik ez duzu (16, Larregi etorbidea, 64500 Donibane Lohitzune).

Bide batez, gogoratu apirilaren 6ko kontzertuan Kepa Junkera, Xosé Manuel Budiño eta Iruñeko Muthiko Alaiak izanen direla, Donibane Lohitzuneko Jai Alain 21:00etan.

Sarean eta BiHeK elkarlanean aritzeko hitzarmena egin dute

Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola publikoetako zuzendariak biltzen dituen Sarean Elkartek eta Bigarren Hezkuntzako eskola publikoetako zuzendariak elkartzen dituen BiHe elkartek lankidetzarako ituna sinatu dute.

Elkarte biak derrigorrezko hezkuntzaren esparruan aritzen dira, eta bat egiten dute hainbat kezka eta helbururekin. Hori horrela izanik, lankidetzarako hainbat interesgune ikusi dituzte eta horrexek batu dituzte. Ibilbide berri horren helburu nagusia bi elkarrekin ahalmen koordinatzea eta ikastetxetan hezkuntza kalitatea eta etengabea hobekuntza bultzatzea izan da.

Horren barruan lau asmoren berri eman dute. Lehenik, 0-19 urte bitartean egin daitezkeen hezkuntza ibilbideei buruzko informazioa hobetu nahi dute, hiritarrak hobeto informatuta egon daitezkeen. Era berean, irakaskuntza publikoan ikasten ari diren ikasleentzako etengabeko jarraipena bultzatu nahi dute, be-



reziki Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren artean ikasleentzako ibilbidea ezagutzeko eta, hala, tutoreen informazioa hobetzeko.

Bigarrenik, irakaskuntza publikoak dituen ahalmenak eta gaitasunak hobeto ezagutarazi nahi dituzte, besteak beste: irakasle asko egiten ari den lan espezializatua, irakasleriaren inplikazioa, ingelesaren sarrera goiztiarra, eta beste lurraldeetako gazteekin egiten diren elkartrukeak Sokrates, Leonardo eta antzeko programen bitartez. Zentzu horretan, eskoletako profesionalen lana

hobeto ezagutu dadin eta ikastetxeen baliabide materialak eta giza baliabideak hobeto daitezkeen lan egingo dute bi elkarrekin.

Hirugarren asmoa eskola zerbitzuak hobetzea da, hots, jangela eta garrarioa. Zerbitzu horien kudeaketa eta kalitatea hobetzeko eta erabilgarritasuneko diru laguntzak gehitzeko hezkuntzako beste eragileekin lanean dihardutela aditzera eman dute.

Azkenik, informazio eta komunikazio gizartera egokitzeko Premia Planarekin jarraitzeko nahia agertu dute. Baliabide teknologiko berrietara egokitzeko irakasleek orain arte egin duten ahalegina aipatzeaz gain, oraindik ere prestakuntza planak duen garrantzia eta beharra aipatu dituzte. Baliabide horien erabilera bultzatuz, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen komunikazioa hobetu nahi dute.

historiak zertzeladak

Libe Goñi: Seaskako lehen irakaslea



Amagoia MARTIJA

EHUko Pedagogiako ikaslea

1969. Urte horretan sortu zen Seaska, Iparraldeko Ikastolen Elkarte. Bi haur eta irakasle bateko ikastola izan zen lehenengo, Arandia-Nobliatarren etxean kokatu zena. Lehen andere o hura Libe Goñi izan zen eta oraindik ere Seaskan jarraitzen du, Angeluko ikastolan, hain zuzen ere.

Lehendabiziko urte haietako kontuak eta bizipenak ahaztu gabe gordetzen ditu, eta gogoz kontatu dizkigu.

Lehenengo ikastolaren sorrera

Orain dela 33 urte sortu zen Seaska Baiona ttipiko Cordeliers karrikako etxe batean. Hura izan zen Iparraldeko lehen ikastola. Han bizitzen Argitxu Nobliak bere bi hurrek euskaraz ikas zezaten nahi zuen. Hala, bere senarra Lazaro Arandia Libe Goñirekin jarri zen harremanetan. Jaiotzez lazkaotarra zen irakasle hura Hegoaldetik alde egin eta Donibane Lohitzunera iritsi berria zen. *“Lazaro Arandiari Donibane Lohitzunera andereño bat iritsi zela esan zioten. Nik Parisera frantsesa ikastera joateko asmoa neukan eta trena hartzera*

nindoan egun berean deitu egin zidan. Bere etxera joateko eskatu zidan, bere emaztea nere beharrearantz zegoela eta. Ikastola bat muntatu nahi zuen bere bi semeekin, ez baitzuen frantsez ikas zezaten nahi. Baiezkoa eman nion eta han hasi zen Seaska”.

Pixkanaka guraso gehiago ere animatu ziren eta euren seme-alabak ikastolara bidaltzen hasi ziren. Leku egoziago bat topatu beharrearantz aurkitu ziren, eta horrela, Enbatako kideek Baionan zuten lokal bat utzi zieten. *“Hala ere, apartamentu txiki bat zen, ez oso aproposa haurrentzat”* gogoratzen du Libek. *“Tarte horretan, Garat familia*



Arrangoitzeko ikastola 1970ean ireki zen hamabi hurrekin eta Libe Goñi andereñoarekin.

sartu zen ikastolan, eta haien bitartez jakin ahal izan genuen Arrangoitzen markesa gazteentzako etxe bat eraikitzen ari zela. Printzipioz asteburutan soilik erabiltzeko asmoa zuten eta astegunetan libre geldituko zen. Horrenbestez, gaztetxe hartara joan ginen". Hala ere, eraikuntza amaitu bitartean Miarritzen egon ziren lau hilabetez. Azkenik, 1970. urtean, Arrangoitzera joan ziren eta hango ikastolaren ateak ireki ziren Baiona, Arrangoitz eta Arbonako hamabi haurrekin.

Seaska elkartea osatzeko urratsak

Libe Goñik gogorarazten digu 6 urtera arte haurrak ez zezudela eskolara joatera behartuta. "Orduan, 6 urtera arte gurasoek haurrak ikastolara ekar zitzaizkaten. Hala ere, hemengo jende gehienaz pozik zegoen eskola frantsesarekin, ez zen bestaldean gertatzen zena pasatzen. Oso goera ezberdinak ziren".

Arazoa 6 urtetik aurrerako haurrekin sortzen zen. Izan ere, ikastola ez zegoen legalizatu eta ondorioz gurasoak penalizatuak izan zitezkeen. Horregatik, 1969an bertan, apirilaren 30ean, Seaska elkarte bezala deklaratu izan zen. "Ni izan nintzen elkartearen lehen langilea, eta idazkari bezala izendatu ninduten. Ezen, andereño bezala izendatua izateko titulu frantsesa behar nuen eta nik espainola nuen" gogoratzen du Libek.

Legez atzetik ikastolentzat aurrerapauso garrantzitsua ekarri zuen. Eta ondoren, kurtsu berriak sortzeko beharrik ikastolen nahiz Seaskaren hedapena eragin zuen. Pixkanaka-pixkanaka haur kopurua haziz joan zen heinean, irakasleak ere gehiago ziren. "Jone Forkada, Marikita Tanburin, Amaia Aseginolaza eta abar hasi ginen eta han hemenka banaturik hainbat ikastola ireki ziren". Libe andereñoa 10 urtetan jardun zen Arrangoitzeko ikastolan. Gero Baionako erdialdeko ikastolara igaro zen eta ondoren Polo auzoko ikastolara. Handik berri Arrangoitzera itzuli zen eta 1992ra arte egon zen bertan. Geroztik Baionako Oihana ikastolan egon zen eta ikasturte honetan An-



Aurtengo ihauteriak festa giro alaietan ospatzen ditugu Angeluko ikastolan Libe eta haurrak.

geluko ikastolan da. 20 haurreko ikastola ttipi eta alai da Angelukoa eta Ama Eskolako haurrak bertatzen dira.

Iparraldeko ikastolen suspertzean ezin da ahaztu elizak eman duen laguntza. "Hasi ginen pixka bat elizak lagunduta, bestaldean bezala. Horrez gain, Azkaineko auzapeza herriko etxeko kontuetatik %1, 2 edo 5 ikastolarako ematen hasi zen, eta hori beste urrats bat izan zen, ordura arte gurasoak baitziren dirua jartzen zutenak". Lehendabiziko guraso haiek benetan euskaldun sentitzen zirela dio Libek, "euren seme-alabak euskaldun sentitzea eta euskal munduan murgiltzea bilatzen zuten ikastolaren bitartez. Euskaldun izateaz erabat harro zeuden, hau da, euskaraz pentsatu nahiz sentitzen zuten eta euren nortasunaren parte garrantzitsutzat zuten geure hizkuntza den euskara. Egun, aldiz, sentimendu horrek ez du hainbeste indarrik, eta zenbait kasutan bigarren hizkuntza ikastea da gurasoen helburua".

Ikastolan eta kalean

70eko hamarkadan ez zegoen euskarazko material handirik, eta zegoen gutxia Hegoaldetik, Donostiatik hain zuzen ere, ekarritakoa zen. "Ni Donostiako Gordailu argitaletxera joaten nintzen eta euskarazko material gehiena handik ekartzen nituen" dio Libek. "Horrez gain, udan han-hemenka egiten ziren ikastaldietara joan ohi nintzen. Bilkura haiek ikasteko, gure artean ezagutzeko eta elkarri egiten genuenaren berri emateko balio zuten".

Hala ere, haurrak hezteko garaian, testu liburuak ez ziren beste baliabide asko erabiltzen zituzten, hala nola, jolasak, kantuak eta kontakizunak. "Garai hartan ez genuen ia materialik erabiltzen, eta beharbada, ez genuen beharrik ere ikusten. Karmele Esnalek ere urte askotan zehar, besteak beste, bere ahotsarekin, bere eskuekin eta bere kantuekin egin zuen lan".

Euskararen lanketa ez zen lau hor-



metara soilik mugatzen, aitzitik, euskara eta euskal kulturarenganako maitasun sentimendua herri osoan susperitzen saiatzen ziren. Horren adierazle garbia dugu Olentzerorekin lehenengo aldiz atera zireneko unea. Liberen ahaleginaren eta lanaren fruitua izan zen, ordura arte Iparraldean Olentzeroren irudia erabat ezezaguna baitzen. *“Hemen Papa Noel eta Jesus haurrak ekartzen zituzten opariak. Orduan, gurasoei deitu eta Olentzeroren berri ematea erabaki nuen. Mutiko bat Olentzeroz jantzi, txistua atera eta plazara atera ginen. Arrangoitzeko herria biziki eremu zabala zen, eta abenduko asteburu bakoitzean auzo batera joaten ginen Olentzerorekin. Etxean Papa Noelek ekartzen zizkien opariak, baina ikastolan Olentzerok”.*

Ikastolen eta euskararen egoera Iparraldean

Urte hauetako ibilbideari eta etorkizunari begira jarrita, Libek badu zeresanik. Bere ustez Seaskaren politika edo jokamoldeak eragin zuzena eduki du ikasle kopuruan, baina ez onerako. *“Manifestaldiak egin dira ezker eta eskuin, baina hemengo jendea oso kontserbadorea da. Beste jokamolde batzuk erabili izan balira, nik uste dut gaur egun ikastoletan izan behar zirela ez 1.200 haur, baizik eta gutxienez 5.000. Badira guraso batzuk betiko galdu ditugunak”.*



Herriko etxeen konpromiso faltak

ere ikastolen bizia baldintzatzen duela dio Libek. *“Benetako borondatea behar da herriko etxeen aldetik, eta benetan euskara salbu izateko neurriak hartu behar dituzte. Ezin dugu beti eskean ibili eskaleak bagina bezala. Hemengo euskaldun anitzek ez badituzte ikasketak egiten, ez badituzte kargu politikoak eta goiko karguak hartzen, dena frantsesen eskuetan geldituko da, beti bezala”.* Hala ere, gauzak aldatzen ari dira, hori ezin da ukatu. *“Oroitzen naiz Andoaingo ikastolan nintzela auto-stop egin eta sekula santan ez genuela esaten ikastolan lan egiten genuenik. Gaur egun, ordea, trankil-trankil esan dezakegu ikastola batean lan egiten dugula”.*

Euskararen egoeraz galdetuta, Liberen iritziz Euskal Herriak gaur egun bizi duen egoera lotsagarria eta mingarria da. Horrenbeste urtetan zehar euskararen alde borrokatu ondoren, gaur egun haurren artean erdara (frantsesa eta gaztelania) da nagusi, euskararen erabilera klase orduetara murrizten delarik kasu gehienetan. *“Hemen ez dago hizkuntza kontzientziarik, espainolez edo frantsesez aritzen gara askotan eta hori ezin dut onartu. Nik ez dakit zer egin, baina errealitatea ulertzea nahiko gogorra zait, ikusiz gu zigortuak gine-la euskaraz hitz egiteagatik”.*

Ikusitakoak ikusita, guztiz goraipatu beharra dago Libe Goñik nahiz garai hartako beste irakasle eta guraso askok euskararen alde eta berau suspertzeko asmoz buruturiko lana. Ekarpene hori gabe ez baitakigu gaur egun nola egongo zatekeen gure euskara. ●





lania

S A I L A

Lau ipuin urrezko

Ipuinak marrazkiekin

Marrazkiak ipuinekin

Liburu atsegin eta bixi-bixiak

Bertako marrazkigileak

Bertako idazleak



Portueta kalea, 88 bis
Donostia 20018, Gipuzkoa
Tel. 943310267
Fax 943310218
<http://www.elkarfanean.com>

euskal herriak bere eskola

Euskal Herriko herri ezberdinetako ikasle, irakasle eta gurasu talde batek Euskal Herriak Bere Eskola izeneko kampania abian jarri zuen pasa den urteko Urriari. Hilabete luzeetan zehar kampania 37 herrietara eta hiriburuetako 24 azizotara heldu da. Etxandaka lagunek parte hartu dute lan taldeetan, beste etxandaka batzuk izan dira hitzaldietan eta milaka izan dira euren sinadura eman dutenak.

Zaitasun guztien gaitetik kampaniak izandako arrakastak hasieran hartatik buruan hartuta zehilkiagun ideiak gorputza ematera bultzatu gaitu. Horia horien ideia, herri eta auzo-laguntzeko hezkuntza beharretatik abiatutako hezkuntza mugimendua baiten beharra, hezkuntza sistema propio baiten alde era praktiko baiten lan egingo duena eta horretarako esparru ezberdinetako lagunak bilduko dituztena (ikasleak, irakasleak, gurasoak zein herritarrek; publikoak, ikastoletikook zein pribatuakook, haur lehen zein bigarren hezkuntzakoak, hezkuntza formalekoak nola ez-formalekoak...).

Erronka ez da Nolanabikoa, ez eta laupabost hilabeterako zerbaite. Bere garapen euskarazko hezkuntzaren inguruan herri zein herri egondako mugimenduaren lekukoa jaso nahi dugu, euskararen arloan egiteko daitezkeenak helduz, eta bizkaitzatik haratago hezkuntza eredu propio baiten aldeko ibilua irekiz. Herri Mugimenduaren baliogarritasuna aldarrikatzen dugu tokian tokiko lanaren bidez aldaketa orokorrak eragin ditzakeen ondarru da guretzat.

Egitasmo berri eta kitzikagari honetan guztion ekarpena garrantzitsua delako, Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenaren sorrera prozesuan parte hartzeko deia zabaldu nahi dugu, baitetik herri mailan eta bestetik Euskal Herri mailan. Bigarreneko hiru ahaztu behar dituzten orokor eta irekia antolatuta dugu, Martiaren hasieran burutzen ari diren zuzendeko batzarretako ekarpenak jasoko dituztena.

MARTXOAK 23, LARUNBATA

Goizeko 10etan*

Lambide Heziketako ikastetxean (ALTSASU)

* Saioa gonakoa izango da. Herri bazkaria antolatuta da herriko elkarte baitan, bizkaitetara sarrera nahi duen orokorretzat. Aurretik emari behar da saria.

herri ekimena
craiki ezazu
eraiki dezagun!

HARREMANITAN JARTZEKO
661-003038 (Araba)
679-319687 (Bizkaia)
696-200570 (gaitontzeko herrialdeak)